



## **ANTZUOLAKO HIRI-ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORREKO INGURUMEN-IKERKETA ESTRATEGIKOAREN IRISMENEO DOKUMENTUA.**

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 6. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeko 72. artikuluan eta II A) eranskinean xedatzen denarekin bat etorritik, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak (aurrerantzean HAPO) ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedura arruntera lotu behar dira derrigorrez.

Ildo horretatik, Antzuolako Udalak HAPO plana izapidetzeko prozesuari ekin dio. Beraz, ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeko 18. artikulua aplikatuz, Ingurumen Zuzendaritzari plan horren ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedura arrunta abiatzeko eskatu zion 2023ko apirilaren 5ean.

Horri dagokionez, ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeko 19. artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 abenduaren Legeko 68. artikuluan ezartzen denez, ingurumen arloko alderdiak plan eta programen prestakuntzan txertatze aldera, ingurumen organoak irismeneko dokumentua eratu behar du ingurumen-azterketa estrategikoak izan behar dituen anplitudea, xehetasun maila eta zehaztasun maila zedarritzeko xedez, aldeztu aurretik eragindako administrazioei eta interesa agertzen duen publikoari kontsulta egin ostean.

Horrenbestez, 10/2021 Legeko 62. artikulua aplikatuz, eta ekainaren 30eko 4/2023 Foru Dekretuan eta uztailaren 4ko 12/2023 Foru Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiak Antzuolako HAPO planaren irismeneko dokumentu hau igorri du.

### **1.- ANTZUOLAKO HAPO PLANA ANTOLATZEKO EREDUAK ETA AUKERAK**

Antzuolako Udalak, ingurumen-ebaluazio estrategikoko prozedura arrunta abiarazteko, igorritako dokumentazioan jasotzen dira aurrerapen bat, hasierako dokumentu estrategikoa eta dokumentu horietako bakoitzari dagozkion planoak.

Aurrerapenean diagnosiaren laburpen bat burutzen da. Hor problematika ez ezik, ingurune sozial eta fisikoan zein hiri ingurunean identifikatutako abaguneak zehazten dira. Halaber, arrisku naturalei eta klima-aldaketari, azpiegitura berdeari eta natura-intereseko espazioei, zein arloko beste araudi batzuei buruz (kultur babesa, kutsagarriak izan daitezkeen lurzorua, zonifikazio akustikoa, zortasun aeronautikoak eta salgai arriskutsuen garraioari dagozkion arriskuak) gainjarritako zenbait baldintzatzaile zehazten dira. Ondoren, antolamenduaren helburu orokorrak eta oinarritzko irizpideak ezartzen dira. Azkenik, antolamendurako aukerak deskribatu eta aztertzen dira, hala ingurune fisikora zein hiri ingurunera lotuta.

Honako hauek dira, laburtuta, Antzuolako HAPO planaren aurrerapena prestatzeko proposatutako oinarritzko irizpideak.

#### **A. Ingurune Fisikoa.**

- Zonifikazio berria egiteko orduan ur-baliabide ugariak eta baso-masa kopuru oso handia kontuan izatea.
- Ingurune fisikoaren lurralde-antolaketa planteatzeko garaian ingurune naturala balioan jartzea eta EAEk ingurumenarekin lotuta hartutako konpromisoak gaineratzea oinarritzat hartzea.
- Lur urbanizaezina birkalifikatu aurretik, kutsatutako lurzorua berreskuratzeari lehentasuna ematea.
- Balio ekologiko handiko eremuen artean konektagarritasuna sustatzea, ingurune naturalaren zatibanaketa murriztea, eta biodibertsitatea hobetzea begira, oinarri egoki bat erreproduzitzeko duen sare bat eratzea, ahalbidetuko duten igarobide ekologikoak sortuz.
- Dauden isuriek amaitzea, goiko eremuei zerbitzua emateko ur beltzen saneamendurako sarearen balizko adarrak edo arazketa automatikoko bestelako sistemak planifikatuz.
- Ur-ibilguen eta ur-hartzeen eragin-eremuan erabilera arautzea eta ubideak ingurumenarekin lotutako irizpideak betez berreskuratzea.

- Babes bereziko eremuak planifikatzea eta ekosistemetako eta lurzoru estrategikoen eta kudeaketa publikoko udal erreserbako ingurumen alderdia hobetzea.
- Batasunaren intereseko habitaten galera saihestea eta bisoi europarraren habitataren zainketa, mantenu eta berreskurapena ziurtatzea.
- Kalitate akustikoko helburuak betetzen direla ziurtatzea.
- Energia berriztagarriko instalazioen ezarpena arautzea, ingurumenarekiko errespetua bilatuz.

## B. *Hiri ingurunea*

- Aurretiaz artifizial bilakatutako lurzoruen erabilerari lehentasuna ematea, bereziki, nekazaritza lurrak eta lur naturalak zainduz.
- Hiri zatiketa eta sakabanaketa ekiditea.
- Hiri egitura irmo, konpaktu eta konplexuak sustatzea, planteatzen diren premiei erantzuteko.
- Garraio publikoarekiko edota auto pribatuaz aparteko beste garraiobide batzuekiko irisgarritasun ona duten lurzoruen garapenak lokalizatzea, hornidura- eta saneamendu-sarerako irisgarritasuna dutenak, energia-efizientzia pasiboari dagokionez baldintza egokiak dituztenak eta ur-bitartekoa, zein harekin lotutako zerbitzuak eta inguruneak mantentzeko aukera ematen dutenak.
- Urak hartutako eremuetan hiri garapenen finkapena ekiditea, eta egoera naturalean dauden ibilguak arteztu edo bideratzea saihestea.
- Garapen berriak eskariari erantzuteko behar beste ur-baliabide egotera baldintzatzea.
- Erabilera bateragarri, espazio libre eta zuzkidura ezberdinei dagokienez plangintza orekatu baten alde egitea.
- Industrialdeen funtzionamendua hobetzeko irizpideak gaineratzea, eraikuntza eta urbanizazioko ordenantzetan eraikinen irudia hobetzea sustatzeko ordenantzak gaineratuz eta beste zenbait alderdi sartuz, esate baterako, energia berriztagarriaren ekoizpena, energia mota horren autokontsumoa eta energia-efizientziaren hobekuntza.
- Tokiko mailan, landare-hondakinak edota udalerriko gainerako hondakin organikoak biltzeko kudeaketa egoki bat txertatzea, horretarako beharrezkoak diren azpiegiturak sortuz.

Irizpide horien arabera, alternatiben proposamen bat aurkezten da (horien artean egungo egoera mantentzeko dagokion 0 alternatiba) antolamenduaren alderdi ezberdinei dagokienez. Gainera, hasierako dokumentu estrategikoan jasotzen diren alternatiben gainean ingurumen arloko atariko azterketa bat egiten da, eta ingurumenari begira mesedegarrienak zein diren adierazten da. Edozein kasutan, momentuz, ez da horien arteko hautaketarik egin.

Hauek dira, laburbilduz, aurkeztutako proposamenak.

- A. ***Hiri eredia eta lurzoria okupatzeko estrategia.*** Lehendabiziko alternatiban okupaziotik kanpo uzten ditu egun urbanizatuta edo andeatuta ez dauden lurzoruak. Horrenbestez, desklasifikatu egingo lirateke lurzoru urbanizagarri guztiak (Irausta irimo, Ertzile, Zupide eta Eztala sektoreak) edo, are, garatu ez diren lurrak (Ibarre izeneko 10. eremua eta Ibarreta izeneko 13. eremua). Bigarren alternatiban, urbanizatu gabeko lur batzuen gainean jarduteko aukera ematen da, eta gaur egun lurzoru urbanizagarrian eta hiri lurzoruan sartzen diren zenbait lur desklasifikatu egiten dira. Horrela, Irausta Irimo eta Eztala sektoreak osorik desklasifikatuko lirateke, Ertzile sektorea osorik edo zati batean mantentzea, eta Zupide sektorea zati batean desklasifikatzea proposatuko litzateke. Azkenik, hiri lurzoruei dagokienez, Ibarreta izeneko 13. eremuan eta Ibarre izeneko 10. eremuan sartzen diren zenbait lur lurzoru urbanizaezin modura geratuko lirateke. Dena den, aldi berean, Ibarreta izeneko 13. eremuan lurzorua 3.500 m<sup>2</sup> sailkatu egingo lirateke ekonomia-jardueretarako egungo industriarekin batera, eta Ibarre izeneko 10. eremuan aisialdi-eremu bat sortzea proposatuko litzateke berau lurzoru urbanizagarri modura sailkatuz. Hasierako dokumentu estrategikoan alternatiben gainean egindako azterketatik ondorioztatzen denez, lehendabiziko alternatiba da ingurumenaren ikuspegitik bideragarriena. Hori horrela da alternatiba horretan murrizten delako gehien hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarriaren okupazioa, eta horrek ingurumenari dagokionez balioa duen landarediaren aurkako eragina (2,65 hektarea, eta bigarren alternatiban 7,31 hektarea. eta 0 alternatiban 13,39 hektarea) zein nekazaritzako intereseko lurzoruen eta Batasunaren intereseko habitaten aurkako eragina (1,15 hektarea lehendabiziko alternatiban, 1,56 hektarea bigarrean eta 6.2 hektarea 0 alternatiban) gutxitzea dakar.

- B. **Lurzoru urbanizaezina (LUE).** Lehendabiziko alternatiba modura, indarrean den Nekazaritza eta Basogintzako LPS planaren antolamenduaren egokitzapen bat proposatzen da, eta bigarren alternatiba modura, aurrekoaren eratorpen bat, lurzoruen egiazko egoeraren gainean xehetasun handiagoko azterketa baten bidez, LPS planaren zonifikazioa aldatzen duena, alternatiba gaurkotuago bat eta egun dagoenarekiko leialago bat proposatzeko. Horrek berekin dakar, beste alderdi batzuen artean, Babes Berezia kategoria definitzea, non sartuko bailirateke *“zenbait baso autoktono, lehentasunezko Batasunaren intereseko habitatak, Debagoienako LPP planean ezarritako natura-intereseko eremuak, interes geologikoko zenbait leku eta mehatxupeko espezie modura katalogatutako animalia edo landare populazioak barne hartzen dituzten eremuak”*. Gainera, ingurumena hobetzeko kategorian, inbentarioan kutsagarritzat jasotako lurzoruak eta andeatutako basoen eremuak barneratzen ditu. Halaber, balio estrategiko handiko nekazaritzako lurzoru babestuen azalera berriro definitu eta areagotu egiten du, udalerriz gaindiko sarearen osagarri izango den igarobide ekologikoko sare baten atariko diseinua egitea proposatzen du, eta baita lurzoru erreserbak sortzea ere konektagarritasun ekologikoko edo natura-intereseko eremuak babesteko helburuak betetzeko beharrezkoak diren lurrak eskuratzeko xedez. Lurraldearen Antolamendurako Artezbideen gainean berriki egindako berrikuspenean hitzartutako ildoak kontuan izanik, ikuspegi juridikotik so, 0 eta 1 alternatibak bazterturik geratuko lirarteke, egun indarrean den legeria ez baitute betetzen. Gainera, bigarren alternatibak esparruaren gaineko antolamendu osoago eta erakusgarriagoa barneratzen du, eta tokiko igarobide-sare baten atariko diseinu bat gaineratzen du, egun dagoenaren osagarri dena eta ingurumen aldetik balio gehien duten lurraldeko esparruekiko lotura modura baliagarri dena.
- C. **Mugikortasuna.** Lehendabiziko alternatiban, eta Udalak laster idatziko duen Mugikortasun Iraunkorreko Planean proposatzen diren neurrien zain, jarduteko oinarritzko zenbait proposamen aurreratzen dira, besteak beste, Gi-2632 errepideko bidegurutzetean, Lizarraga Hiribidean eta Sagasti eta Kalegoi kaleen arteko konexioan eragina dutenak. Halaber, hiri eremu osoa zeharkatuko duen txirrindu/oinezko ardatz bat sortzea proposatzen du, bizitegi-eremuak, ekonomia-jardueren eremuak, hainbat ekipamendu eta eremu libreak elkarlotuko dituena. Bigarren alternatibak lehendabiziko alternatibako jarduketak barneratzen ditu eta, gainera, hiri bizimoduaren osasuna eta kalitatea hobetzeko jarduketak azpimarratzen ditu. Horrela, udalerriaren barna ibilbide osasungarrien sare bat ezartzea planteatzen du, esate baterako, Deskarga errekararen eskuin ertzetik luzatzeko bide berri baten proposamena, eta zenbait kale edo bide oinezkoen erabilerari begira eta ibilgailu motordunen erabileraren aurka egokitzekoa. Gainera, txirrindulari-sarea osatzea proposatzen du, ardatz nagusia erakarpen-polo nagusietarantz (kasu honetan, ekonomia-jarduerak sortzen dituztenak) adarkatuz. Hasierako Dokumentu Estrategikoari helduz, ingurumenaren ikuspegitik, lehendabiziko zein bigarren alternatibek iraunkortasun-irizpideetan oinarritutako jarduketak barne hartzen dituzte, ondorio positiboekin, handiagoak izango direnak bigarren alternatiban, izan ere, lehendabiziko alternatiban ez dauden jarduketak gaineratzen dira bertan. Beraz, bigarren alternatiba hori da ingurumenaren ikuspegitik bideragarriena.
- D. **Eremu Libreak.** Alternatiba bakarra proposatzen da, 0 alternatibaz gain. Lehendabiziko alternatiba horretan gaur egun hirigintza-planeamenduan jasotzen diren eta garatuta dauden eremu libre guztiak gaineratzea, Zupide sektoreko lurzoruak deskalkifikatzea, Olanan bizitegi-eremuan erabilerak sendotzea eta ibai parke baterako hiru alternatiba ezberdin eskaintzea (Ibarreta izeneko 13. eremuan, Ibarre izeneko 10. eremuan eta Ibarre Auzoa. Antigua, Errekalde izeneko 9. eremuan) proposatzen da. Hasierako Dokumentu Estrategikoan ondorioztatzen denez, lehendabiziko alternatiba da ingurumenari dagokionez bideragarriena, izan ere, parke eta berdegunetara bideratutako eremu libreak areagotzeak inpaktu positiboa du, hiru eremuak natura-ingurunearekin uztartzen dituelako horrek, eta airearen kalitatea hobetzea dakarrelako, herritarren osasunera eragin positiboa ekarriz.
- E. **Zuzkidura ekipamenduak.** Lehendabiziko alternatibak egungo ekipamendu-sarea mantentzen du, Pump Tracka kirol ekipamendu modura sendotuz, eta autokarabanentzako egungo aparkalekuaren kokapena ere sendotuz. Gainera, Zupide sektoreko lurzoruak deskalkifikatu egiten ditu. Bigarren alternatiba aurretik abiatzen da, baina honako proposamen hauek gaineratzen ditu: Autokarabanentzako aparkalekuaren kokapena Ibarreta izeneko 13. esparrura eramatea, Hilaturas esparruan beste ekipamendu bat gaineratzea, eta gaur egun Kalebarren kaleko 8 zenbakidun eraikinak hartzen duen espazioan zuzkidura-bizitoki bat gehitzea. Bi alternatiba horietako edozeinetan, jarduketak hiri-lurzoru finkatuan garatzen dira. Hasierako Dokumentu Estrategikoan adierazten denez, bigarren alternatiba da bideragarriena ingurumenaren ikuspegitik, izan ere, biek jarduketa positiboak ekarri arren, bigarrenak jarduketa osagarriak gaineratzen ditu.

- F. **Ekonomia-jarduerak.** Ekonomia-jardueretara bideratutako lurzoru nahiko dagoela uste da. Beraz, lehendabiziko alternatibaren proposatzen den antolamenduak, hala Lizarraga hiribidea izeneko 16. esparrua zein Hilaturas izeneko 11. esparrua berritzeko premiari, eremu mistoak sortzearen alde eginez (bizitegi erakoak, zuzkidura erakoak eta ekonomia-jardueretarakoak), erabilera industrialen okupazioa murriztuz, nola Goizper enpresako instalazioak handitzeko premiari erantzuten dio. Horrela, Ibarreta izeneko 13. esparruan 3.500 m<sup>2</sup>ko azalera industria-eremu bat proposatzen da eta, bestalde, Goizper handitzeko balizko 3 kokaleku proposatzen dira (Antiguako Industrialdea izeneko 14. eremua, egungo E. Zupide sektoreak Goizperreko lurrekin muga egiten duen zatia, eta Ertzile sektorea). Bigarren alternatiba lehendabizikotik abiatzen da, baina erabilera industrialak ez direla gehiago hedatu behar ulertzen da eta, aitzitik, lehendabiziko eta hirugarren sektoreak indartu egin behar direla. Lehendabiziko sektoreari dagokionez, Lurzoru Urbanizazina antolatzerako garaian nekazaritza balio handieneko lurzoruak babesteaz gain, tokiko ekoizpeneko elikagaien lehen eraldaketarako partzela bat kokatzeko aukera aztertzea proposatzen da. Hirugarren sektoreari dagokionez, coworking erako lanleku bat lekutzeko aukera aztertzea proposatzen da. Hasierako Dokumentu Estrategikoan azken alternatiba hori hartzen da ingurumenaren aldetik bideragarri modura, izan ere, lehendabiziko eta hirugarren sektoreei begirako proposamenak planteatzen dira, jardueren arteko oreka finkatzeko, eta nekazaritza aldetik balio handikoak diren lurzoruak babestu nahi dira.
- G. **Bizitegi-lurzoruak.** Hiri ereduari dagokion atalean aipatu den moduan, Ibarre izeneko 10. eremuan eta Irausta-Irimo sektorean jarduketak baztertu egiten dira, eta hiri lurzoru trinkotzearen aldeko apustua egiten da, Hilaturas, Lizarraga hiribidea eta Kalebarren kaleko 8. zenbakian dauden egungo eremuetan hiri berrikuntzarako jarduketak gauzatu. Hilaturas izeneko 11. bizitegi-eremuan 3 alternatiba planteatzen dira, antolamenduari, eraikuntza-tipologiari, eremu libreei eta ekipamendu-eremuei zein bizitegi-eskaintzari dagokienez aukera ezberdinak barneratzen dituztenak. Horrela, lehendabiziko alternatibaren bizitegi-eskaintza 46 etxebizitzakoa da, bigarrenaren 52 etxebizitzakoa eta hirugarrenaren 79 etxebizitzakoa. Lizarragako Hiribidea izeneko 16. ekonomia-jardueren egungo esparruan 3 alternatiba proposatzen dira, antolamenduari, eraikuntza-tipologiari, eremu libreei eta ekipamendu-eremuei zein bizitegi-eskaintzari dagokienez ere aukera ezberdinak barneratzen dituztenak. Horrela, lehendabiziko alternatibaren, beheko solairuan ekonomia-jardueretarako espazioa mantentzea proposatzen da, eta haren gainean 4 solairuko bizitegi-proposamen bat gauzatu da (22 etxebizitza). Bigarren alternatibaren, aurreko alternatibako lurrak ez ezik, Lizarragako Hiribidea izeneko 9. eta 13. zenbakietako bizitegi-eraikinak barneratzen dira. Dena den, ekonomia-jardueretarako azalera murriztu egiten da, Lizarragako Hiribideko 13. zenbakian kokatutako bizitegi-eraikina eraitsi egiten da, eta lau bizitegi-bloke berri eraikitzen dira (27 etxebizitza berri). Azkenik, hirugarren alternatibaren, bigarren alternatibaren barneratzen diren lurrak jasotzen dira, eta ekonomia-jardueretarako azalera ere murriztu egiten da. Bizitegi-eskaintza 48 etxebizitzakoa izango da. Haatik, era berean, Lizarragako Hiribideko 9. zenbakiko bizitegi-eraikina eraitea proposatzen da, kaleari zabalera handiagoa emate aldera. Azkenik, Kalebarren kaleko 8. zenbakiko zonaldean, bi alternatiba proposatzen dira. Lehendabizikoan 8 zenbakidun eraikina eraitsi egiten da eta partzela eraikigarri berri bat sortzen da, bizitegi-eskaintzari beste 5 etxebizitza gaineratuz. Bigarrenaren, 8. zenbakia eraiteaz gain, 6. zenbakian altxaera bat proposatzen da; modu horretan, bizitegi-eskaintzari beste 7 etxebizitza gaineratzen zaizkio. Hasierako Dokumentu Estrategikoaren arabera, proposatutako aldagai ezberdinen artean jarduketa aldetik dagoen aniztasuna kontuan izanik, eta guztien helburua hiri lurzoruaren erabilera optimizatzea dela aintzat hartuz, zaila da ingurumenaren ikuspegitik bideragarria dena hautatzea.

## 2.- EGINDAKO KONTSULTAK

Behin Antzuolako Udalaren eskaera jasota, Ingurumen arloko Zuzendaritza Nagusiak 21/2013 Legeko 19. artikuluan eta 10/2021 Legeko 68. artikuluan aurreikusitako eragindako administrazioei eta interesdunei kontsultak izapidetzeko prozesua gauzatu zuen. Fase horretan kontsulta egin zitzaizkien honako erakunde eta instituzioei:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi eta Ingurune Naturalaren Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapenerako Zuzendaritza Nagusia
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideen Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lan Hidraulikoen Zuzendaritza.



- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
- IHOBE.
- EEE.
- Uraren Euskal Agentzia (URA).
- Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza).
- Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza).
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza).
- Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza (Eusko Jaurlaritza).
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Industriaren eta Energia Trantsizioaren Zuzendaritza.
- Gipuzkoako Uren Kontsorzioa.
- Oñatiko Udala.
- Zumarragako Udala.
- Legazpiko Udala.
- Azkoitiko Udala.
- Bergarako Udala.
- Urretxuko Udala.
- ADIF
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna).
- Deba Garaia.
- Debagoienako Mankomunitatea.
- Eguzki Talde Ekologista.
- Itsas Enara Ornitologi Elkarte.
- Haritzalde Naturzaleen Elkarte.
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa Talde Ekologista.
- Aranzadi Zientzi Elkarte.

Halaber, Aurrerapena eta hasierako dokumentu estrategikoa eskuragarri egon dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen arloko Zuzendaritzaren internet atarian ([www.gipuzkoaingurumena.eus](http://www.gipuzkoaingurumena.eus)) publikoak oro har ingurumen arloan egokitzen jotako ekarpenak egin zitzen.

Erantzunak igortzeko emandako epea igarota, hurrengoak jaso dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak jakinarazi du, aurrerapenean proposatzen den kultura ondarearen katalogoa hasierako dokumentu estrategikoan agertzen dena baino hedatuagoa denez, azken horretan aurrerapeneko katalogoan jasotako elementu guztien gaineko inpaktua aztertu beharko da, hirigintza-antolamendua ez dadin ondareei buruzko erregulazioarekin bateraezina izan. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saileko Ondare Historiko eta Artistikoen Zerbitzuko datu-baseko elementuen zerrenda orientagarria igortzen da, nahiz eta izena ez dagoen 6/2019 legean zein Eusko Jaurlaritzako Ondarea Kultura Ondarearen Zentroan ezarritakora (hor batez besteko babeserako eta tokiko babeserako proposatutako elementuak bereizten dira) egokituta. Elementu bakoitzaren fitxa individual bat egitea gomendatzen da, beste datu batzuen artean, horien lokalizazioa, deskribapen orokorra, babes-araubidea eta kontserbazio-egoera barneratuz. Bestalde, jakinarazi duenez, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legeko 50. artikulua betez, eraikuntza-jarduketek babestutako kultura ondarean gainean sorraraz dezaketzen ikusizko kutsaduran bereziki erreparatu behar da eta, hala balegokio, birplanteatu egin beharko lirake, horien gainean inbasiozko pertzepzioa sorrarazten duen oztoporik suposatu gabe.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Lan Hidraulikoen Zuzendaritzak azaldu duenez, Oztopoak Iragazgaitzeko Plan Gidari bat dago. Plan horretan, ibaietan bizi diren arrain-espezie ezberdinen migrazio-mugimenduak eragozten dituzten presa eta presa txiki batzuen gainean esku-hartzea aurreikusten da, eraispenak lehenetsiz beste esku-hartze batzuen aurrean. Halaber, jakinarazten duenez, natura-ondarea babesteari buruzko 9/2021 Legeko 3.2. artikuluan, lurralde-antolamenduaren eta hirigintza-antolamenduaren zein kultura ondarearen aurrean, natura-ondarea babesteari lehentasuna eman

behar zaiola ezartzen da. Haatik, adierazi duenez, HAPO planaren aurrerapenean zenbait elementu (errotak, burdinolak, etab.) kultur ondare modura babestea proposatzen da, eta horrek eragindako erreka-tarteen ibai berrezarpena ezinezkoa izatea ekarriko luke. Horrenbestez, Antzuolako Udalari eskatzen dio aintzat har dezala ingurumenaren aldagaia ondare-intereseko elementuen katalogoan gaineratzeko eraikuntzen azterketan.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Turismo eta Landa Ingurunearen Sailak antolamendurako alternatiba ezberdinek nekazaritza lurretan izan dezaketen inpaktuari buruzko azterketa burutu du, eta zehaztaperen horien arabera, hainbat proposamen egin ditu. Hala, Ibarreta izeneko 13. eremuko lurzoru ez urbanizatuak eta Ertzile eta Irausta-Irimo sektoreak desklasifikatzea proposatzen du. Edozein modutan, Ibarreta izeneko 13. eremuari dagokionez, egokitatzeko joko litzateke 3.500 m<sup>2</sup> sailkatzea Matz-Errekako jarduera handitzea ahalbidetzeko, bigarren alternatibaren proposatzen den eran. Eztala sektoreari dagokionez, egokitatzeko jotzen da egun eragindako lurrak, ez urbanizatuak, desklasifikatzea, baina dagoeneko urbanizatuta dauden eremuak (futbol-zelaia, eraikina, aparkalekuak, etab.) hiri lurzoru modura sailkatzea proposatzen da. Zupide sektoreari dagokionez, sektore osoa desklasifikatzea proposatzen da, bertako hirigintza garapenera begira linea elektriko bat egoteak sorrarazten dituen zailtasunak ikusita. Azkenik, Ibarre izeneko 10. eremuan ibai-parke bat ezartzea egokitatzeko jotzen dute, lehendabiziko alternatibaren proposatzen den eran, gainerako lurzoruak desklasifikatuta utziz, nekazaritza erabilerrako aproposak izateagatik. Haatik, hiri lurzoruetatik hurbil egoteagatik eta etorkizunean etxebizitzari dagokionez izango den premia kontuan izanik, egun duten sailkapena mantentzeko aukera aztertu egin beharko litzatekeela uste da, izan ere, ez du zentzu handirik lurzoru batzuk desklasifikatzea ondoren, oso denbora laburrean, berriro sailkatzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren arabera, HAPO planaren dokumentuan aitortutako ondare arkeologiko eta arkitektonikoaren eraginak, horietako elementuen zerrenda eta horien babes-araubidea jaso beharko dira, 2022ko martxoaren 2an jakinarazi zen moduan. Halaber, gomendio hauek gaineratzen dira:
  - Zerrendaz hornitutako katalogoa osoaz gain, elementu bakoitzaren fitxa indibidualizatuak, babes partikularreko araudi batekin batera, 2022ko martxoaren 2ko txostenean ezarritako irizpideei jarraituz. Komenigarria izango litzateke elementu horietako bakoitzaren zenbakia zentroak helarazitako identifikazio-zenbakiarekin bat etortzea.
  - HAPO planaren aurrerapenerako ondarearen babesari buruzko proposamenaren gaineratzen ez diren hiru elementu (Madariaga, Aranburu eta Sarasketa baserriak) gaineratzea, horiei tokiko babes ezartzeko.
  - Aurrerapenean “oinarrizko babeseko higiezinak” agertzen den lekuan, haren ordean, “tokiko babeseko higiezinak” ipintzea.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Antzuolako udalerriko babes zibileko arriskuen berri eman du, Eusko Jaurlaritzak onartutako babes zibileko lurralde-planetako eta plan berezietako aurreikuspenetan jasotzen direnak. Honatx arrisku horiek:
  - *Uholdeak gertatzearekin lotutako arriskuak.* Igorritako txostenean, legeria, EAEko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatze Lurralde Plan Sektorialean ezarritako erregulazioak eta erabilera aldetiko mugak azaltzen dira, arrisku mota hori ahalik eta gehien murrizteko.
  - *Arrisku sismikoa.* Udalerria V intentsitate-eremuan kokatzen da, Arrisku Sismikoaren aurreko Larrialdi Planaren arabera. Beraz, Larrialdi Plan Sismiko bat egitetik salbuetsita dago. Haatik, eraikin berrietan, kontuan izan beharko da irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntza Sismorresistenteko Araua.
  - *Baso-sute arriskua.* Jakinarazten denez, hirigintza-plangintzari begira, EAEko Baso Suteen Arriskuen ondoriozko Larrialdietako Plan Bereziko VI. eta VII. eranskinetan baso-sute arrisku handiko eremuetan edo hiri-baso interfaze eremuetan erabilerei dagokienez Autobabeserako Plana egitearen derrigortasunari buruz, jasotako baldintzatzaileak kontuan izan beharko dira.
  - *Arrisku Teknologikoa. Salgai arriskutsuen garraioa.* Antzuolaren kasuan, GI-2632 errepidea eta A-636 autopista berria dira salgai arriskutsuak garraioa ditzaketen bideak. Lehendabizikoak arrisku kartografiatu baxua du eta bigarrenaren gainean arriskua ebaluatu egin beharko da. Arrisku horrekin lotuta, bideen paraleloan luzatzen den lerro bat aintzatetsi behar da, 600 metrokoa



aztertutako azpiegituraren alde banatan, hori izango bailitzateke istripurik gertatuz gero, esku-hartzeko eremua.

- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak oso modu positiboan balioesten du hiri eredurako eta lurzoruaren babeserako estrategiari begira hautatutako alternatiba (01 alternatiba), lurzoru ez urbanizatu edo andeatu gehiago kolonizatzea ez dakarrena, eta hiru lurzoru eta lurzoru urbanizagarrien hainbat desklasifikazio planteatzen dituena. Bestalde, Lurzoru Urbanizaezineko erabileren erregulazioari dagokionez orotarazten duenez, garatuko den hirigintza-araudiak kontuan izan beharko ditu Nekazaritza eta Basogintzako LPS planeko 10. artikuluan adierazitako eraginak, hau da, Balio Estrategiko Handiko Lurzoru Urbanizaezineko eremuekin lotutako araudia jaso beharko du berariaz, eta eremu horietan aurretiaz dauden guneetan oinarritzen ez diren hazkuntzak saihestu behar dira. Halaber, gogorarazten duenez, udal planeamendua idatzi eta onartzeko izapideetan, ezinbestekoa da Nekazaritza eta Basogintzako LPS planeko Nekazaritza arloko Afekzioaren Ebaluaziorako protokoloa aplikatzea, nekazaritza lurren okupazioa eta HAPO Planeko proposamenen ondorioz nekazaritza ustiapenen gainean sorrarazitako inpaktua kontuan izanik. Bestalde, txostenean HAPO planaren hirigintza-araudia idazteko garaian kontuan izan beharko diren Nekazaritza eta Basogintzako LPS planaren antolamendurako arauak agertzen dira. Nekazaritzako lurraren okupazioari dagokionez, zenbait ildo ezartzen dira, eta gomendagarritzat jotzen da planeamenduan horiek aintzat hartzea. Azkenik, hirigintza-planeamenduan landa- eta natura-eremuak hobetzeko ekintza positiboko programa eta neurriak zein aurretiaz adierazitako ildoekin lotutako jarraipenerako sistemak gaineratzeko aukera aztertzea gomendatzen da.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzaren arabera, HAPO planaren atariko proposamena bat dator natura-baliabide nagusiak mantentzearekin bateragarria den planteamendu baterako irizpideekin eta, Lurzoru Urbanizaezina antolatzeko proposamenari dagokionez, bigarren alternatiba dela natura-ondarearen ikuspegitik baliozko elementuak mantentzeko premiari ondoen erantzuten diona. Haatik, berrikusteko zenbait alderdi barneratzen ditu. Horrela, *Babes Berezia* kategorian Lurzoru Urbanizaezinean dauden baso autoktono guztiak gaineratu beharko dira eta, lurzoru urbanizagarrien edo hiri lurzoruen barnean baleude, babestu egin beharko liriateke, espazio libreetara gehituz edo antzeko irtenbideak bilatuz. Horrenbestez, IEE ikerketan intereseko landarediaren eraginpean egon daitekeen HAPO planeko esparru bakoitza xehetasunez aztertzea eskatzen da, dagozkion prebentziozko neurriak eta neurri zuzentzaileak ezartzeko. Halaber, **hiri ereduari eta lurzoruaren okupaziorako strategiari** dagokionez, lehendabiziko alternatiba mesedegarriena dela usten da, izan ere, garatu gabeko lurzoru-azalera handiagoa desklasifikatzea dakar. Edozein kasutan, garatzeko zenbait proposamen gauzatzeko modukoak izan daitezkeela ulertzen da, betiere, dagozkion prebentziozko neurriak, neurri zuzentzaileak zein konpentsatzaileak hartzen badira. Bigarren alternatibari dagokionez, natura-ondareren ikuspegitik esparru gatazkatsuenak Antzuola errekarren mugakide direnak izan daitezke. Ibaibideak ukitzen dituzten garapen-esparruetan beharrezkoak diren atzeraemanguneak ezartzeko eta ibai konektagarritasun ekologikoa berreskuratzeko estrategia bat abiarazteko eskatzen da.

Irismeneko dokumentu hau igorri ondotik erantzunen bat jasotzen bada, Antzuolako Udalera igorriko da ahalik eta epe laburrenean, HAPO plana eta ingurumen-ikerketa estrategikoa eratzean kontuan har dadin.

### **3.- INGURUMEN ARLOKO HELBURU ESTRATEGIKOAK, IRAUNKORTASUN-IRIZPIDEAK ETA ARAUDI-ITURRIAK**

Hiri Antolamendurako Plan Orokorrek, udal lurraldearen antolamendu osorako oinarritzeko tresna gisa, ingurumen arloko alderdiak behar bezala gaineratuz, hirigintza eta azpiegiturekin lotutako jarduketetatik eratorritako ingurumen-inpaktu negatiboak murriztea ez ezik, udalerraren ingurumenaren kalitatea hobetzen laguntzea ahalbidetzen du.

A. HAPO planaren ingurumen-helburu estrategikoen ingurumen arloko honako helburu eta irizpideak hartu behar dituzte oinarritzat, gutxienez:

- Ingurumen arloko kalteen prebentzioa lehenestea haiek zuzendu eta konpentsatzearen aurretik, HAPO plana eratzerakoan ingurumen alderdiak behar bezala aintzatetsiz eta, era berean, plan horretara ingurumena hobetzeko proiektu eta jarduketak gaineratzea.
- Energia-iraunkortasunetik eratorritako betekizunak lurraldearen antolamenduan eta urbanismoan txertatzea.

- Natura-baliabideen eta nekazaritzakoen kalitatea eta ahultasuna nahiz ingurumenaren kalitatea eta klima-aldaketa, eta aurreikusitako erabilerekin lotutako zonalde ezberdinak hartzeko gaitasuna kontuan hartuko duen lurzoruen erabileren esleipen bat finkatzea.
- Lurzorua artifizial bilakatzeko joera eta hazkunde demografikoa banantzea. Saillkatutako lurren okupazioa agortzea lurzoru berriak sailkatu aurretik, eta lurzoru urbanizagarri berriak sailkatzeko erabakia behar bezala arrazoitzea, nahikotasuna eta egokitasuna adieraziz, eta benetako premiei erantzuteko behar-beharrezkoa den lurzorua bakar-bakarrik mugatuz. Inguruabar sozioekonomikoei eta indarrean diren iraunkortasun-irizpideei erreparatuz hirigintza-garapenerako egokiak ez diren lurzoruak desklasifikatu eta lur urbanizaezinerara "itzultzea".
- Balizko hirigintza-garapenak eta azpiegiturak lokalizatu eta horiek haiek ziurtatzeko moduan antolatzea:
  - Natura-baliabide baliotsuen (landaredia autoktonoa, ibilguak egoera naturalean, etab.) gaineko eragina minimizatzea.
  - Arrisku naturalen prebentzioa (uholde arriskua, kutsagarriak izan daitezkeen lurzoruak, etab.):
  - Ur hornidura eta saneamendurako sareetarako sarbidea, garapen horiek behar bezala ematea bermatzeko moduan.
  - Energia-efizientzia pasiboaren baldintza egokiak.
- Hiri-zonalde trinko eta anitzak lehenestea, dentsitate ertain/handi batekin eta erabileren nahasketa eta konplexutasun egoki batekin, dentsitate baxuko/oso baxuko bizitegi- eta industria-garapen berriak eta etxebizitza isolatu eta atxikien tipologia ekidinez, izan ere, azken horiek hiri-eredu sakabanatu eta lausoa bultzatzen dute, lurzoru, energia eta material asko kontsumitzen duena.
- "Etxebizitza hutsaren" okupazioa eta eraikitako ondarearen eraberritzea bultzatzea; modu horretan, eraikin berriak eraikitzea ekidinez.
- Aurretiaz dauden hiri-ehunduren optimizazio funtzionala eta birmoldaketa sustatzea, haiek birgaitu, berregituratu eta berrituz, nahiz espazio marjinalak berreskura daitezela bultzatzea, lurzoru eta baliabideen optimizaziorako estrategia gisa.
- Hiriaren zatiketa edo sakabanaketa ekiditea, erabilera edo jarduera desberdinak behar bezala integratuta eta espazialki kohesionatuta jarrai dezaten ahalbidetuz, mugikortasun premia handirik sor ez dadin.
- Mugikortasun arrazional eta iraunkorragoa sustatzea, banaketa modala oinez ibiltzera, txirrindura eta garraio kolektibora bideratuko duena, eta erregai alternatiboak erabiltzen dituzten garraio bideak bultzatuko dituen.
- Iturri berriztagarrietan oinarritutako energia hornitzeko instalazio deszentralizatuen ezarpena ahalbidetzea, energia gehiago tokiko eta erkidegoko mailan kudeatzea bultzatuz.
- Berotegi-efektuko emisioak eta nitrogeno-partikula eta -oxidoen ondoriozko kutsadura murriztea, energia erabiltzeko garaian aurrezteko neurriak eta efizientziako neurriak hartzearen eta energia berriztagarriak zein horiek txertatu eta erabiltzeari begira aurrerapausoak emateko aukera ematen duten sistemak garatzearen ondorioz.
- Biodibertsitateko elementu bereziekiko eragina ekiditea (landaredia autoktonoa, mehatxupeko espezieen habitatak, etab.) eta natura-ondarearen egoera orokorra zein ingurumen-zerbitzuak emateko bere ahalmena mantendu edo hobetzea.
- Lur urbanizaezinen antolamendu egokia finkatzea, landa-bitartekoa zaintzeko moduan, horien garapen ekonomikoaren, ekosisteman duten eginkizunaren (lehengaien hornidura, ingurunearen zaintza, etab.) eta ingurumenaren kalitate eta paisaia aldetiko baldintza egokien arteko oreka bilatuz.
- Natura-eremu eta -elementuen kalitatea eta funtzio aniztasuna mantendu eta berrezartzea, balio ekologiko handiko eremuen arteko konektagarritasuna sustatzera begirako udalerriko azpiegitura berdearen plangintza eta kudeaketa egokiaren bidez; natura-ondarearen egoera orokorra eta ekosistema-zerbitzuek emateko bere ahalmenaren hobetzea.
- Plangintzan paisaiaren faktorea txertatzea, haren babes, kudeaketa eta antolamendua bultzatuz, Paisaiari buruzko Europako Hitzarmenean ezartzen den moduan.





- Baliabide (ura, energia eta materialak), hondakin eta sorrarazitako kutsagarrien balantzean eragin negatiboa murriztea, hala eraikuntzak oro har eragindakoa (eraikinak, egiturak, urbanizazioa), nola haren funtzionamenduak eragindakoa, zikloak ixteari so.

- Ur baliabideak eta ur ingurunea –lurpeko edo lur gaineko ur kontinentalak– babestu, zaindu eta leheneratzea, uraren Esparru Zuzentzarauaren helburuak lortzen saiatuta. Ildo horretatik, ur arloan dagoen araudiak ezarritako atzeraemangune eta zortasunak errespetatuko dira, eta egungo zein etorkizuneko isuriak behar bezala tratatzea bermatuko da.

B. Bestalde, Antzuolako HAPO plana eratzean hurrengo arau eta dokumentuotan iraunkortasunarekin lotuta barneratzen diren irizpideak eta printzipioak hartuko dira kontuan:

- Nazio Batuen Agenda 2030.
- Ingurumen arloko Europar Batasuneko VIII. Ekintza Programa Orokorra 2030era arte.
- Europako Itun Berdea.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumen Esparru Programa 2030.
- Euskadiko Lurzorua Babesteko Estrategia 2030.
- Euskadiko Baso Plangintza (1994-2030).
- Euskadiko Biodibertsitate Estrategia 2030.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia.
- Klima Aldaketaren aurkako Euskal Autonomia Erkidegoko Estrategia 2050.
- Euskadiko ekonomia zirkularraren Estrategia 2030.
- Bultzatu Hiri Agenda 2050.
- Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia 2050.
- Euskadiko Estrategia Energetikoa 2030.
- Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050.
- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzeko ekainaren 30eko Legegintzako 7/2015 Errege Dekretuko 3. eta 20. artikulua.
- Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 3. artikulua.
- Klima Aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legeko 2. artikulua.
- Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 2. artikulua eta Euskadiko natura ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legeko 3. artikulua.
- Urei buruzko ekainaren 23eko 1/2006 Legeko 3. artikulua.
- Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeko 4. artikulua.
- Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legeko 6. artikulua.
- Plan eta programetako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuko 1. eta 2. artikulua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeko 5. eta 6. artikulua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuko 2. artikulua.
- Azpiegitura Berdearen eta Konektagarritasun eta Berrezarpen Ekologikoko Estrategia Nazionaleko 2.3.8 atala.

C. Azkenik, hauek dira irismeneko dokumentu hau eratzean kontuan hartu diren eta Antzuolako HAPO plana eratzean kontuan izateko ingurumen arloko arau nagusiak:

### **Europar**

- Europako Kontseiluak 1992ko maiatzaren 21ean emandako 92/43/EEE Zuzentaraua, habitat naturalak eta fauna zein flora basatia kontserbatzeari buruzkoa.
- 2000/60/EE Esparru Zuzentaraua, uraren politikaren esparruan Batasuneko esparrua ezartzekoa.
- 2004/49/EE Zuzentaraua, zaratari buruzkoa.

### **Estatuan**

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
- Legegintzako 7/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzekoa.
- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketari eta trantsizio energetikoari buruzkoa.
- 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.
- Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legea.
- 37/2003 Legea, azaroaren 17koa, zaratari buruzkoa, eta 1367/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duena, zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta soinu emisioei dagokienez.
- Legegintzako 1/2001 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Ur Legearen testu bateratua eta berori garatzeko erregelamenduak onartzekoa.
- 35/2023 Errege Dekretua, Kantauriko Mugape Hidrografikoaren 2022-2027 aldirako Plan Hidrologikoa onestekoa.
- 197/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, Espainiari dagokion Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren berrikuspena eta eguneratzea onartzekoa.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.

### **Autonomia Erkidegoan**

- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betikoz onartzekoa.
- 87/2005 Dekretua, apirilaren 12koa, Arrasate-Bergara (Debagoiena) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana behin betikoz onartzekoa.
- 177/2014 dekretua, Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala behin betikoz onartzekoa.
- 415/1998 Dekretua, EAeko (Kantauri isurialdea) Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzeko LPS plana behin betikoz onartzekoa, eta haren ondorengo aldaketa (449/2013 Dekretua).
- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa.
- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, urei buruzkoa.
- 4/2015 Legea, Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzekoa, eta hura garatzeko dekretua.
- 49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, hondakinak hondakindegietan biltegituta eta betelanak eginda ezabatzea arautzekoa.

- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa.
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoa.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzekoa.
- 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura ondarea kontserbatzeari buruzkoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondareari buruzkoa.
- 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23ko, nekazaritza eta elikadura politikari buruzkoa.
- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.

#### Gipuzkoa

- 7/2006 Foru Araua, urriaren 20koa, Gipuzkoako Mendiei buruzkoa.
- 2/2013 Foru Araua, ekainaren 10ekoa, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana behin betikoz onartzekoa.

#### 4.- INGURUMEN-EBALUAZIOAREN GEOGRAFIA-EREMUA. ANTZUOLAKO UDAL BARRUTIKO BALIABIDE ETA EREMU GARRANTZITSUAK.

Ebaluazioaren xede den geografia-eremua planean aurreikusitako jarduketek sorrarazitako eragin guztiak aintzatesteko modukoa izan beharko da, hirigintza-jarduketak ez ezik, araudiko zehaztapenen ingurumen arloko ondorioak ere barne hartuz. Oro har, Antzuolako udal barrutia hartuko du, nahiz eta zenbait alderdik udal barrutitik haragoko lurralde baten gaineko eraginari buruzko azterketa eska dezaketean, esate baterako, paisaiaren gaineko eragina aztertzerako orduan.

Ingurumen-ebaluazioa xeheetasun gehiagoz egingo da antolamenduaren alternatiba ezberdinek jarduketa inpaktuzkoak aurreikusten dituzten eremuetan, esate baterako, hirigintza-garapenak planteatzen diren eremuetan.

Ingurumen arloko Zuzendaritza Nagusi honetan dagoen informazio bibliografiko eta kartografikoa behatu ondotik, eta beste administrazio batzuen aldetik jasotako erantzunak aintzatesi ostean, Antzuolako udal barrutian ingurumenarekin lotutako interes berezia duten baliabide eta espazio hauek identifikatu dira:

A. **Zuhaitz-masa autoktonoak eta Batasunaren intereseko habitatak.** Hasierako dokumentu estrategikoaren arabera, udal barrutian, egungo landarediaren % 66,48 baso-sartzearen ondorio da, eta baso naturalen portzentajea % 13,73koa da. Batasunaren intereseko habitatei dagokienez, udal barrutiko % 19,29 dira. Horien artean, ugarienak *altuera baxuko sega-belardiak (6510) eta Pagadi azidofilo atlantikoak (9120) dira, Ilex oihanpea ere agertzen delarik, eta zenbaitetan haginak ere bai.* Gainerakoen azalerak oso urriak dira (% 1etik beherakoak) eta, besteak beste, 91E0 eta 6230 lehentasunezko habitatak sartzen dira (*Nardusdun belar-formazioak, espezie askorekin, mendialdeko eremuetako silize-substratuen gainean*).

Lur urbanizaezinaren antolamenduari buruzko aurrerapeneko bigarren alternatiban (legez bideragarri den bakarra) zenbait baso autoktono babestu egiten dira, Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatekin batera, Babes Bereziako kategorian gaineratuta. Gainera, Batasunaren intereseko habitaten babes gehigarri bat gaineratzen da gainjarritako baldintzatzaileen erabileraren bidez, beharrezkoa ikusten ez dena; izan ere, beren zainketa indartu gabe, eremu jakin batean kontuan izan beharreko erabilera-ildoei buruzko azterketa zaildu egiten du. Horrenbestez, nahikoa izango litzateke baso autoktono guztien Babes Berezia kategorian gaineratzea, Batasunaren intereseko lehentasuneko habitatekin batera, formazio horietarako gainjarritako baldintzatzaile espezifiko bat zehaztearen babes gehigarria baztertuz.

Bestalde, eta aurrerapenean bertan adierazten diren irizpideen ildotik, ahal den heinean, intereseko landaredia babesteko kontserbazio aktiborako neurriak hartzeko ahalegina egingo da, lurzoruaren udal

ondarera titulartasun pribatukoak izango diren balio ekologiko handiko basoak gaineratzeaz, edo lurraldea zaintzeko akordioak, horiek kontserbatu edo masa helduagoak izatera eramate aldera, finkatzeaz gain.

Proposatutako alternatibek intereseko landarediaren gainean duten inpaktuari dagokionez, lehendabiziko zein bigarren alternatibetan lurzoru urbanizagarriak eta urbanizatu gabeko hiri lurzoruak desklassifikatu egiten direnez, inpaktu hori 0 alternatibetan baino askoz ere apalagoa izango da, nahiz eta inpaktu gutxitze hori nabarmenagoa izango den lehendabiziko alternatibetan bigarrenetan baino, horietako lehenean desklassifikatutako azalera handiago baten alde egiten baita. Eragindako Batasunaren intereseko habitatak dira 6510 *Altuera baxuko sega-belardi elkorrak* (gutxi gorabehera, hektarea bat bi alternatibetan, nahiz eta zertxobait handiagoa izan bigarrenetan) eta 91E0 *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieen Baso alubialak (0,29 hektarea bi alternatibetan).

Edozein kasutan, bi alternatibek egungo egoera hobetzea badakarte ere, HAPO garatzeko azkenik gauzatuko den alternatiba aukeratzeko garaian, intereseko landaredia autoktonoaren gaineko eragina gutxitzea lehenetsiko da. Halaber, azkenik, lurzoru urbanizagarri eta are hiri lurzoruetan koka daitezkeen zuhaitz-masen kasuan, prebentziozko neurri zein neurri zuzentzaile egokiak finkatu beharko lirateke, esate baterako, garapen-eremuetako espazio libreetara gaineratzea eta behar besteko atzeraemanguneak zehaztea, eta Antzuola errekarerekin mugakide den eta azkenik eragina jasan dezakeen ibaiertzeko landarediaren kasuan, ibai konektagarritasun ekologikoa berreskuratzeko estrategiak zehaztea.

**B. Flora eta Fauna.** Sokomendi parajeen, udalerrriaren hegoaldera, *Sorbus hybrida* espeziearen kontserbazio-eremua dago. Espezie hori EAEko Flora Baskularreko Zerrenda Gorrian jasota dago. HAPO planean hura *Mehatxatutako espezieen-Floraren babeserako Eremuak* gainjarritako baldintzatzailearekin babestea proposatzen da.

Bestalde, faunari dagokionez, bisoi europarraren *Lehentasunezko Banaketa Eremuko* bi tarte daude. Batek Antzuola errekarerekin ibilguarekin egiten du bat, herrigune nagusitik igarotzen den gunean; eta bestea ipar-ekialdean dago, Antzuola, Azkoitia eta Zumarragaren arteko mugan barna. HAPO planean hura *Mehatxatutako espezieen-Floraren babeserako Eremuak* gainjarritako baldintzatzailearekin babestea proposatzen da.

Azkenik, 2016ko maiatzaren 6ko Aginduz identifikatutako hegazti-fauna babesteko hainbat eremu hautematen dira. Agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak zedarritzen dira eta hegazti-faunaren babes-eremuak argitaratzen dira, non aplikatuko baitira goi-tentsioko aireko lineatan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak. HAPO planean hura *Mehatxatutako espezieen-Floraren babeserako Eremuak* gainjarritako baldintzatzailearekin babestea proposatzen da.

HAPO plana izapidetzeko prozesuan zehar, xehetasun gehiagoz zehaztu beharko da baldintzatzaile horietako bakoitzean aplikatu asmo den erabilera aldetiko mugaketa, horien eraginpeko espezieak babestu eta zaintzen direla ziurtatzeko. Hori bereziki garrantzitsua da bisoi europarraren *Lehentasunezko banaketa eremuak* babesten dituen gainjarritako baldintzatzailearen kasuan; izan ere, bere azaleraren zati handi bat Antzuola errekarerekin mugakide diren garapen-eremuekin lotuta dago, herrigunean. Horrenbestez, behar besteko atzeraemanguneak zehaztu eta ibaiertzeko landaredia eta ibai konektagarritasuna hobetzeko neurriak txertatu beharko lirateke; hori guztiori, ugaztun horren habitata zaindu, mantendu edo berreskuratzea ziurtatzeko, aurrerapena eratzeko proposatutako irizpideetan aipatzen den eran.

**C. Azpiegitura berdea.** Antzuolako udal barrutiaren mendebaldeko eremuan EAEko igarobide ekologikoen sarearekin lotura egiten duen igarobide bat dago, zehazki, IZARRAITZ-AIZKORRI-ARATZ-URKIOLA izeneko. Hala igarobide hori, nola bere indargetze-eremua, *Lurralde Igarobidea eta Igarobidearen Indargetze Eremua* izeneko 2 baldintzatzaile gainjarriekin daude babestuta.

Halaber, tokiko beste zenbait igarobide beste baldintzatzaile batekin babesten dira. Hori bat letorke Lurralde Antolamendurako Gidalerroetako 4. artikuluan ezartzen denarekin. Horiek Zubinerreka, Sorgin, Errenkata, Ugaranerreka, Atxagaerreka, Txalika eta Esnaola errekastotetan barna igarotzen dira, 300 metroko zabalerako zerrendatan. Horiekin batera, Funtzionaltasun Ekologikorako Intereseko Guneak (FEIG), [Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarearen Proposamenean](#) zedarrituak, ere kontuan izatea iradokitzen da.

Azkenik, hiri azpiegitura berdeari dagokionez, kontuan izango da Lurraldearen Antolamendurako Artezbidetean adierazten dela tokiko azpiegitura berdearen barneko zat hartuko direla espazio libreen sistema orokor modura kalifikatutako espazioak eta, aukeran, espazio libreen eta berdeguneen tokiko

sistemak. Horien gainean espazio berdeen jarraikortasunetako, balio ekologikoa mantentzeko eta ekosistema-zerbitzuak indartzeko printzipioak aplikatuko dira, eraikitako hiriaren espazio libreen iragazkortasuna bultzatuz.

D. **Onura Publikoko Mendiak.** Antzuolako udal barrutian onura publikoko mendi ugari dago. Guztira, 240,93 hektareako azalera hartzen dute. HAPO planak *Onura Publikoko Mendiak* baldintzatzaile gainjarriarekin babesten ditu. Eredu horretan, lehentasunezko helburu gisa baso autoktonoen kontserbazioa eta berreskurapena ezartzen da. Zehaztapen hori interesgarritzat jotzen da, eta kontuan izan beharko da horien baso-kudeaketa planifikatzeko garaian.

E. **Abeltzaintza eta Nekazaritza Lurzoruak.** Nekazaritza eta Basogintzako LPS planeko sailkapenaren arabera, Antzuolako udal barrutiko lurzoru gehienak *Baso eta Baso-Mendi Mehatz* kategorietan sartzen dira, guztira % 84,69ko portzentaje batekin. Hurrengo kategoria *Trantsizioko Landa Paisaia* da, % 13,76ko portzentaje batekin. *Balio Estrategiko Handiko* lurzoruen kasuan, portzentajea oso txikia da (% 0,38), guztira 1.054,98 hektarea, eta gehienak Antzuolako herrigunearen mugakideak dira edo hurbil daude.

Nekazaritzarako erabiltzeko ahalmen handiko lurzoruak babestearen garrantzia ikusita, eta Nekazaritza eta Basogintzako LPS plana betez, HAPO planean, Lurzoru Urbanizaezinaren kategorizazioan, plan horrek zehaztutako Balio Estrategiko Handiko eremuen mugaketa eta horrekin lotutako araudia jaso beharko dira berariaz. Mugaketa hori, Lurzoru Urbanizaezinaren antolamendurako aurrerapeneko 2. alternatibaren proposatzen den eran, handitu egin ahal izango da udal planeamenduan, berau LPS plan honetako helburu orokorren arabera justifikatuz. Sartzeko erabilerean araubidea bat etorriko da plan horrekin.

Bestalde, Aurrerapenean, lurzoru okupatzeko hainbat alternatiba aurreikusten dira, baina horietako bakar batean ere ez da proposatzen egun hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri modura sailkatuta ez dagoen lurzoru berririk kolonizatzea eta, are, neurri handi ala txikiagoan, alternatiba ezberdinen arabera, egiaz urbanizatuta edo andeatuta ez dauden hiri lurzoruak edo lurzoru urbanizagarriak desklassifikatzea aurreikusten da. Horrenbestez, batez ere lehendabiziko alternatibaren, Balio Estrategiko Handiko lurzoruen okupazioa murriztu egingo da egungo Arau Subsidiarioekin alderatuz, eta hori oso positibotzat jotzen da.

Edozein kasutan, HAPO plana izapidetzeko prozesuan zehar, Nekazaritza eta Basogintzako LPS planeko 10.e artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, ezinbestekoa izango da nekazaritzaren sektorearen gaineko eragina ebaluatzea, nekazaritzako lurzoruen okupazioa HAPO planean jasotzen diren proposamenen ondorioz eragina jasan dezaketen nekazaritzako ustiapenen gaineko inpaktu modura kontuan izanik, oinarritzat hartuz Nekazaritza eta Basogintzako LPS planean "*Planak aplikatzearen eta obra eta jarduera burutzearen ondorioz sortutako Nekazaritza arloko Afekzioaren Ebaluazioari*" dagokionez ezarritakoa kontuan izanik. Hori ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterlanean bertan egin ahal izango da. Ebaluazio horren arabera, hala badagokio, dagozkion prebentziozko neurriak, neurri zuzentzaileak eta neurri konpentsatzaileak zehaztuko dira.

Azkenik, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko Legeko 16. artikuluan adierazten den eran, kontuan izan behar da nekazaritza balio handiko lurzoruen gainean Euskal Autonomia Erkidegoan aurreikusitako edozein administrazio-proiektu edo -jarduketa egiteko, nekazaritza arloan eskumena duen foru organoak txostena igorri beharko duela, berau behin betikoz onartu aurretik.

F. **Paisaiaren Kalitatea.** Ikusizko bi ardo nagusi daude: Antzuola eta Urola. Horietako bakar bat ere ez dago *EAEko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoan* katalogatuta. Edozein kasutan, antolamenduen oinarritzko irizpide modura, paisaiaren kalitatearen mantenu eta hobekuntza gaineratu beharko litzateke plangintzako eskala ezberdinetan, hala egiturazko antolamendua burutuz eta HAPO planaren bidez erabilerak esleituz, nola garapenerako plangintzan eta urbanizazio-proiektuetan urbanizazio-baldintzak ipiniz. Halaber, eta eskala txikiagoan, garapenerako eremu ezberdinetan ezartzen diren hirigintzako jarduketek dagokienez, HAPO planaren hirigintza-fitxetan ezarriak, paisaia aldetiko integrazioarako azterlan bat barneratzea iradokitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7. artikuluan jasotzen den eran.

G. **Kultura Ondarea.** HAPO Planaren idazketako aurreragoko faseetan, hirigintza-dokumentuan Ondare arkeologiko eta arkitektonikoaren Katalogo bat gaineratu beharko da, eta baita babeserako araudi bat ere, Euskal Kultura Ondarearen Zentroak jarduketekin lotuta igorritako preskripzio eta irizpideak kontuan izanik. Planoak gaineratuko dira, eta baita elementu bakoitzaren fitxa indibidualak ere. Fitxa horietan elementuaren lokalizazioa, bere deskribapen orokorra, ondare interesari dagokionez zer balio dituen, argazkiak, babeserako araubidea eta kontserbazio-egoera jasoko dira.

Bestalde, ingurumen-ikerketa estrategikoan hasierako dokumentu estrategikoaren kultura ondareari buruzko atala berrikusi eta osatu egin beharko da. Horrela, bertan jasotzen den idatzizko informazioa zein informazio grafikoa bat etorri beharko da HAPO planeko ondare arkeologiko eta arkitektonikoaren Katalogoan ezarritakoarekin. Aldi berean, ondarearen gaineko eraginaren azterketa sakondu egin beharko da, eragin negatiboak gertatzen ez direla ziurtatzeko moduan. Ildo horretatik, eta Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legeko 50. artikulua betez, ondarearen gaineko balizko beste inpaktu batzuen artean, antolamenduari buruzko alternatiba ezberdinetan proposatzen diren eraikin berriek babestutako kultura ondarearen gainean sorraraz dezaketzen ikusizko balizko kutsadura aztertuko da, eta dagozkion prebentziozko neurriak zein neurri zuzentzaileak hartuko dira, esate baterako, proposatutako antolamenduaren zuintzeta. Halaber, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Lan Hidraulikoen Zuzendaritzak aurretiko kontsultei emandako erantzunetan azaltzen duen eran, ibilgu publikoetan kokatutako egituretan, ingurumenaren aldagaia aintzatetsiko da eraikuntza horien azterketan, ondare-intereseko elementuen katalogoan gaineratzea balioesten denean, horien kontserbazioaren eta ibai ibilguen hobekuntzaren artean oreka egokia lortze aldera.

**H. Jabari Publiko Hidraulikoa eta bere babes-eremuak:** Udalerriko sare hidrografiko nagusia Antzuola errekarri dagokio (Deskarga modura ere ezagutzen da), hegoaldetik mendebaldera igarotzen dena Bergara bidean, udalerraren erditik igaroz. Udalerrian, era berean, Antzuola errekararen adarrak diren errekarasto eta lats ugari dago.

Antzuolako udal barrutian azaleko uren egoera kontrolatzeko estazio bat dago, Aristi izenekoa. Jarraipen-sareko 2021eko txostenean, Antzuola A ur masaren egoera ekologikoa ona dela adierazten da 2021ean, baina neurritzkoa 2017-2021 bosturtekoan. Egoera kimikoari dagokionez, egoera ona izan da estazio horretan.

Aurrerapenean proposatutako alternatiben inpaktuari dagokionez, egungo Arau Subsidiarioekin alderatuz, lurzoruen deskalkifikazioa mesedegarritzat jo daiteke, batez ere, lurzoruaren okupazioarako estrategiako lehendabiziko alternatibaren kasuan.

Edozein kasutan, eta azkenik gauzatuko diren garapenak neurri handiagoan zehazten direnean, ingurumen-ikerketa estrategikoan udal barrutiko ur bitartekoan proposatutako jarduketan ondoriozko eraginaren azterketa egokia gaineratu beharko da. Aldi berean, babes-neurrien, neurri zuzentzaileen eta, hala badagokio, neurri konpentsatzaileen sorta osatu bat zehaztu beharko da, aipatu inpaktuak gutxitzen direla bermatze aldera. Neurri horiek HAPO planaren araudi orokor edo berezira gaineratu beharko dira, jarduketan garapenean horiek betetzen direla bermatzeko.

Bestalde, lur urbanizaezinaren kategorizazioan, ibilgu guztiak Azaleko Uren Babesa kategorian sartu beharko dira, eta dagozkion hirigintza-fitxetan EAEko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzen LPS planaren arabera errespetatu beharko diren atzeraemanguneak zehaztu beharko dira. Gainera, ahal den neurrian, urertzeko zerrenda berrezartzeko proposamena gaineratuko da.

Azkenik, kontuan izan beharko da, Jabari Publiko Hidraulikoaren babes-eremuen barnean edozein jarduketa egiteko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren baimen egokia beharko dela, URA agentzian izapidetuko dena.

**C. Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoaren barneko Eremu Babestuak.** Plan Hidrologikoak babestutako hiri hornidurako 5 ur-bilketa jasotzen dira (Katia, Abaro, Akiñabei, Laskurain Bareño eta Akiñabei zundaketa), guztiak 50 eta 2.000 biztanle bitarteko hein baterako. Plan Hidrologikoko 16. artikulua aplikatuz, ur-bilketa horietako bakoitza babesteko eremu bat ezarriko da, isurki-arroaren gainean 100 metroko erradioko arku batek zedarrituta. Horrenbestez, aurrerapenean proposatzen den eran, Lurzoru Urbanizaezinaren antolamenduan ur-bilketa zein babes-eremua barne hartuko dituen baldintzatzaile gainjarri bat gaineratuko da; eta HAPO planeko hirigintza-araudian baldintzatzaile horretarako ezartzen den erabilera lotuen araubideak aipatu ur-bilketaren baliabidearen kalitate zein kopurua mantentzea bermatu beharko du. Baldintzatzaile hori, era berean, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoko eremu babestuen barnean sartzen ez diren beste ur-bilketetara hedatu ahal izango da.

Era berean, natura-intereseko ibai tarte bat du, 1,47 kilometroko luzerakoa, Antzuola 5 izenekoa. Tarte hori baldintzatzaile gainjarri batekin babestuko da, eta 16. artikuluan eremu horietarako ezarritakoa ere kontuan izango da; hots, tarteko fauna eta flora naturalak ez ezik, ingurune fisiko naturala ere asalda ditzaketzen jarduerak mugatu egingo dira.

Azkenik, babes bereziko beste eremu bat, urarekin lotutako kultura ondarearen barnean, Errotaberri Errota da. Hori ustezko zona arkeologiko modura dago babestua Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordeak 1997ko urriaren 14an emandako Ebazpenaren arabera, zeinaren arabera Antzuolako Ustezko Zona Arkeologikoen Deklarazioa igortzen baitzen. Babesaren barnean sartzen dira hala eraikina, nola hari atxikitako instalazioak.

**D. Kutsatuta egon daitezkeen lurzorua.** Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioak kutsatuta egon daitezkeen lurzorua dituzten 36 partzela ditu. Horietako 10 zabortegiak dira eta 26 industria-partzelak. Lehenengoak Lurzoru Urbanizaezinean daude kokatuta, eta bigarrenak herrigunean daude.

Lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen arabera, kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak edo instalazioak hartu dituen edo hartzen dituen lurzoru batean erabilera-aldaketa bat gertatzen bada, lurzoruaren kalitatea deklaratu da. Halaber, eremu horietako bakoitzaren hirigintza-fitxetan kutsatuta egon daitezkeen lurzoru horien existentzia eta horrek berekin dakartzan legezko betebeharrak jaso behar dira.

**E. Arriskuak.** Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duen dekretuak, hau da, premia- neurri buruzko 105/2008 Dekretuak, ekainaren 3koak, 31.1.b) artikuluan ezarritakoa betetz, udalerriko natura-arriskuei buruzko mapa erantsi behar zaio ingurumen-ikerketara estrategikoari. Halaber, ingurumen-ikerketara estrategikoan aurretiaz dauden arriskuak murriztea edo areagotzea ekiditeko neurri zuzentzaileak finkatu dira, eta proposatutako planeamenduan kontuan izan behar dira ingurumen arloko arrisku horiek erabilera eta jarduera erregulatze aldera.

Antzuolako udal barrutiko arrisku garrantzitsuenei dagokionez, honako hauek aipa daitezke:

- **Uholde arriskua:** Antzuola errekaen trazadura, herrigunetik igarotzean, uholde arriskuak ditu, gehienetan 10 urteko errepikatze-denborarekin. Garapenerako proposatutako alternatiba bakoitzerako uholde arriskuari dagokionez leudeken inplikazioak aztertu behar dira, eta egoera ez dela larritu bermatu behar da, hirugarrenengan eragin dezaketen arriskuekin zein ingurunea kalte dezaketen arriskuekin lotuta. Gainera, aurrerapenean proposatzen den *Eragin hidraulikoko eremuak* baldintzatzaile gainjarrian, HAPO planak kontuan izan behar ditu Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan, uholde arriskuak kontuan izanik, lurzoruaren erabileretan ezartzen diren mugak, zehazki hartako 42. eta 45. artikuluetan. Azkenik, Plan Hidrologikoko 48.1. artikulua betetz, hirigintza-garapen berriek zolaketa eta okupazio iragazgaitza ezinbestekoa den azaleretara mugatu behar dute, eta hiri barneko drainatze-sistema jasangarria sartu behar dute. Ildo horretatik, HAPO planaren araudi orokorrak, urbanizazio-proiektuetan urbanizatzeko lurzoruen espazio libreetako akabera iragazkorren portzentajeak zehazteko premia gaineratu behar du (gutxienez % 20 espaloietan eta % 35 plazetan eta hiri barneko berdeguneetan).
- **Arrisku Teknologikoa. Salgai arriskutsuen garraioa.** Salgai arriskutsuak GI-2632 errepidetik garraiatzen dira, eta arrisku kartografiatua baxua da. Arrisku horretarako, eta bere eragin-esparruetarako, baldintzatzaile gainjarri bat ezarri da. Haatik, HAPO Planaren izapidean, A-636 autopista berriaren ondoriozko arriskua ere ebaluatu egin behar da.

**F. Klima-aldaketa.** HAPO planean klima-aldaketaren aurka borrokatzeko irizpideak baitaratu behar dira, hala emisioak gutxitzeari (energia-efizientzia, berriztagarrien sustapena, motordun mugikortasuneko beharrianak murriztea, etab.), nola bere ondorioetara egokitzeari begira. Bi alderdi horietarako irizpideak zehazteari erreparatu, Tresnaren dokumentazioan ezarritakoak aintzatetsi ahal izango dira, hala badagokio, HAPO planaren antolamenduko proposamen ezberdinek aztertu ondotik, tresnak berak aukera egoera ematen baitu, Gipuzkoako Hirigintza Planeamenduan Klima Aldaketaren eraginak (<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ingurumena>), egokien modura jotzen direnak, balioetsi eta integratzeko. Oro har, eta egokitzeko premiei dagokienez, IHOBE sozietateak *Euskadiko udalerriek klima-aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa* izenarekin egindako azterlanean, Antzuolarekin lotutako arrisku klimatiko nagusi modura, bero-boladak gizakien osasunean duen eragina eta lehorte handiagoko garaiak areagotzeak nekazaritza eta abeltzaintzako jardueren gainean duen inpaktua nabarmentzen dira.

## 5.- LUR URBANIZAEZINAREN ANTOLAMENDUAN AINTZATESTEN INGURUMEN ALDERDIAK

HAPO plana izapidetzean azkenik garatuko den lur urbanizaezinen antolamendua natura-baliabideen eta nekazaritza-baliabideen erabilera iraunkorra bermatu behar du, eta hartako osagai baliotsu edota

ahulenei babes egokia emateko lur urbanizaezinaren antolamendua finkatu. Antolamendu hori udalerriko lur urbanizaezin guztietako erabilerak eta jarduerak arautuz gauzatu behar da, Lurralde Antolamendurako Jarraibideetan eta Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialean zehaztutako antolamendu-kategoriak esleituz.

Lur urbanizaezinaren kategorizazioa zonalde bakoitzaren ezaugarriak, zonalde horien harrera-ahalmena, ahultasuna eta baitaratzen dituzten natura-baliabideen balioa oinarritzat hartuz burutuko da. Antolamenduan, txosten honetan, aurreko 4. atalean, aipatutako hainbat alderdi izan behako dira kontuan.

Gainera, aurrerapenera gaineratutako baldintzatzaile gainjarrien proposamen zabala berrikusiko da eta, jadanik 4. atalean azaldu den eran, horietakoren baten kasuan, Lurzoru Urbanizaezinaren kategorizazioarekin dagoeneko ematen den babesarekin bikoiztasunik ote dagoen egiaztatuko da. Horrela bada, baztertu egin beharko litzateke, eremu jakin batean erabilerari dagokionez kontuan izan behar diren ildoen azterketa ahalbidetzeko.

Halaber, lurzoru urbanizaezinean onargarriak diren jarduera eta instalazioen kokapen eta garapenerako baldintzak finkatu beharko direla uste da, HAPO planaren arauzko erregulazioaren barnean edo horri buruz berariazko ordenantza arau-emaileak eratu eta onartuz. Hainbat alderdi arautuko dira, besteak beste, hondakin-uren bilketa eta tratamendu egokia, obra eta espazio andeatuen paisaia aldetiko leheneratzea, pisten irekiera, egituren paisaia aldetiko integrazioa, heskaien kontserbazioa edo landa-zonaldea eta natura-zonaldea ingurumen arloan hobetzeko beharrezkotzat zehazten diren bestelako alderdiak.

## **6.- HIRIGINTZA-LURZORUA ETA LURZORU URBANIZAEZINA ZEDARRITU ETA ANTOLATZEAN AINTZATESTEKO INGURUMEN ALDERDIAK.**

Txosten honetako 3. atalean aipatutako helburu eta irizpideekin bat etorritz, hiri-eremuak antolatu eta sektore urbanizagarri berriak zedarritu eta, hala badagokio, antolatzean, gomendio hauek hartuko dira kontuan:

A. HAPO planean barneratzen diren hirigintza-jarduketak egikaritzean proportzionaltasun-irizpideak beteko dira eta une bakoitzean egiaz dauden premiak aintzatetsiko dira, lurzoruaren neurritz gaineko kontsumoa eta bigarren mailako etxebizitzaren sustapena ekidinez.

B. Eraikinen jasangarritasuna eta bizitegi-eremuen ingurumenaren kalitatea bermatuko da, Hirigintza Araubidearen bidez edo HAPO planaren hirigintza-fitxen xehetasunezko antolamenduan zenbait irizpide eta baldintza sartuz, honako helburu hauekin:

– Eraikinen saneamenduko sistema publikoetara gaineratzea behartzea, tratamendurako irtenbide indibidualak eta Jabari Publiko Hidraulikora doazen isurketa puntu gehiago ekidinez.

– Hiri-ingurutan eta urbanizagarrietan natura arriskuen eraginpean egotea ekiditea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan zaratari dagokionez ezarritako hots-kalitateko helburuak betetzea.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean ezarritako helburu, irizpide eta zehaztapenak betetzea, zehazki, 7.5. artikuluan zehazten direnak.

– Eraikin eta azpiegitura berriak bisualki eta estetikoki integratzea, Antzuolako udal barrutiaren paisaia aldetiko kalitatea mantendu eta bertako kultura ondareari ez eragiteko.

C. Eremu eta sektore bakoitzeko hirigintza-arau partikularretan xehetasunezko antolamenduan eta hirigintza-proiektuetan nahitaez aintzatetsi beharreko ingurumen baldintzen zerrenda bat jaso beharko da. Horien artean, hirigintzaren egikaritzean aplikatu beharreko babes-neurriak eta neurri zuzentzaileak barneratuko dira eta baita, hala badagokio, urbanizazio-gastu modura aintzatetsi beharreko neurri konpentsatzaileak ere.

## **7.- INGURUMEN-IKERKETA ESTRATEGIKOAREN EDUKIA ETA IRISMENA**



Antzuolako Udalak eratu behar duen ingurumen-ikerketa estrategikoa (IIE) HAPO planaren zati izango da eta hartan plana aplikatetik erator daitezkeen ingurumenaren gaineko balizko eragin adierazgarriak identifikatu, deskribatu eta ebaluatuko dira, eta baita alternatiba zentzuzkoak eta teknikoki nahiz ingurumenaren ikuspegitik bideragarriak ere, hura aplikatzearen ondorioz ingurumenaren gainean izan daitezkeen eragin kaltegarriak prebenitu edo minimizatu eta ingurumenari eta iraunkortasuni dagokienez ekintza positiboak planteatze aldera.

Ingurumen-ikerketa estrategikoak ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 legeko IV. eranskinean ezarritako edukia izan beharko du, gutxienez, eta baita plan eta programetako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean ingurumen arloko iraunkortasun-txostenerako ezartzen den edukia ere.

Eranskin horietan zehaztutako atalak garatzerakoan txosten honetako aurreko ataletan adierazten joandako alderdiak nahiz aurkezten diren kontsulta eta arrazoibideei erantzunez administrazioek, instituzioek eta interesdunek problematiko modura hautemandako ingurumen arloko alderdiak jorratu beharko dira, eta honakoa kontuan izanik:

### **7.1 Planaren eduki eta helburu nagusien laburpena, eta beste plan eta programekin izan dezakeen harremana.**

Ingurumen-ikerketa estrategikoak HAPO planaren edukiaren laburpen bat jaso behar du (edo hartara jo behar du). Bertan aurrekariak, helburuak eta aurreikusitako jarduketak nahiz zehaztapenak deskribatuko dira, aintzatetsitako gainerako alternatibekin batera. Halaber, jarduketan denbora-plangintza eta planean zedarritutako eremuak xehetasunez planifikatzeko aurreikusten diren garapen-tresnak deskribatuko dira.

Bestalde, HAPO Planak hirigintza-antolamendurako beste tresna batzuekin eta harekin lotura izan dezaketelako lurralde-plan eta plan sektorialekin izan dezakeen harremana aztertu beharko da. Gutxienez, honakoak izan beharko dira kontuan:

- EAEko Lurralde Antolamenduaren Jarraibideak (Lurraldearen Antolamendurako Artezbidetarako)
- Arrasate-Bergara (Debagoiena) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatikotako Plana.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana (LAP).
- EAEko Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala
- EAEko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzeako Lurralde Plan Sektoriala (Kantauri Isurialdea) eta haren lehen aldaketa.
- Kantauriko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2022-2027).
- 197/2023 Errege Dekretua, martxoaren 21ekoa, Espainiari dagokion Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren berrikuspena eta eguneratzea onartzeko.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Ingurumen Esparru Programa 2030.
- Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia 2050 eta Euskadiko Energia Estrategia 2030
- Gipuzkoako eta Euskadiko Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia.

HAPO planaren helburu eta jarduketan eta eremuan nolabaiteko eragina duten plan eta programetako helburu eta zehaztapenen arteko koherentzia eta harremana zehaztuko da. Xedea baterako helburuak bultzatu eta HAPO planaren esku-hartzeko alternatiba ezberdinak ebaluatzea izango da, beste programetako helburu eta jardute-ildoekin gainjarpen, gatazka edo bateraezintasunak ikusiko balira. Halaber, eragindako eremuan aplikagarri diren gainerako planekiko balizko zeharkako efektuak, metagarriak eta sinergikoak identifikatuko dira. Horrela identifikatutako eraginak, hala badagokio, planaren inpaktuak identifikatu eta balioesteko atalean ebaluatuko dira.

### **7.2 Ingurumena babesteari begira, nazioartean, Batasunaren mailan, estatuan, erkidegoan, foru mailan edota udalean ezarritako helburuak, eta plana egituratzerakoan helburu horiek aintzat nola hartu diren justifikatzea.**

Ingurumen-ikerketa estrategikoan irismeneko dokumentu honetako 3. atalean adierazitako ingurumena babesteko eta iraunkortasuneko irizpideak, edo HAPO plana eratzean finkatutako beste zenbait, udalerriaren antolamenduan zer-nola gaineratu diren azaldu beharko da, ahal denean, ezarritako edo proposatutako adierazleak eta mugak adieraziz.

### **7.3 Antzuolako udalerriaren ingurumen arloko ezaugarriak eta horien bilakaera klima-aldaketa kontuan izanik.**

Hasierako dokumentu estrategikoan dagoeneko azaltzen den informaziotik abiatuz, eta irismeneko dokumentu honetako 4. atalean ezarritako ildoak kontuan izanik, ingurumen-ikerketara estrategikoan Antzuolako udalerraren ingurumen arloko ezaugarrien deskribapen bat jaso beharko da, eta egun duen egoerari buruzko diagnosi oso bat burutu beharko da. Horretarako, beharrezkoak diren ikerketa espezifikoak egingo dira, kontsultatutako informazio-iturriak eta bibliografia, Burututako landa-lana eta erabilitako metodologiak adieraziz.

Diagnosian natura-, nekazaritza-, ondare- eta paisaia-baliabideen egoera nahiz hiri- eta landa-zonaldeen ingurumen aldetiko kalitatea deskribatuko dira, eta bereziki babestu edo zaindu beharreko elementu edota baliabideak identifikatuko dira.

Atal horretan, gainera, udalerrriak ingurumen alorrean pairatzen dituen presio eta arazo nagusiak aztertuko dira, arazo horiek HAPO planean zer-nola eragingo duten edo planak berak arazo horiek larriagotuko ote dituen balioesteko.

Deskribapena ez da bitarteko fisikoaren ezaugarriak ipintzera mugatu behar, aitzitik, planean ezarritako antolamenduaren ondorioz modu adierazgarrian alda daitezkeen hiri-metabolismoko alderdi edo aldagaien gaineko informazioa jaso beharko da, esate baterako, uraren hornidura eta saneamendurako sistemak, mugikortasun-sistema (garraio publiko / pribatua, motorduna / ez motorduna) zarata-mailak, edota energia-kontsumoa jasoz. Zehazki, eta indarreko legeria betez, azterlan hauek barneratu beharko ditu, gutxienez:

- **Ur-baliabideen eskaria.** Uraren Legearen Testu Bategineko 25.4 artikuluan aipatzen den Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren dagokion txostena igorri ahal izateko, HAPO planeko zehaztapenek berekin dakartzaten ur-baliabideen eskariaren ikerketa bat gaineratuko da, hala badagokio, baliabide horiek onartzeko uraren gaineko administrazio-emakida edo eskubideak adieraziz. Aurretiaz ezagutzen diren ur-bilketen kasuan, sarera eratorritako emariak onartzeko uraren gaineko emakida edo eskubideen zerrenda bat gaineratu beharko da. ur-baliabideen premien ondoriozko estimazioa 35/2023 Errege Dekretuz onartutako Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren espainiar zatiaren Plan Hidrologikoaren Berrikuspeneko *Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren espainiar zatiaren Plan Hidrologikoaren arauzko xedapenak* izenekoaren 14. eta 15. artikuluetan eta I. eranskineko 6. gehigarrian ezarritakoa kontuan izanik egin beharko da.
- **Zarata.** EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoari erreparaturik, HAPO planaren eremuko zona-banaketa akustikoa egingo da, aipatu Dekretuko 20. artikuluan eta III. eranskinean zehaztutako eremu akustikoak aintzatetsiz eta, horrez gain, hirigintza-agirietan zona-banaketa hori erakusten duen plano bat gaineraturik. Edozein kasutan, etorkizunean hirigintza-garapenak hartuko dituztela aurreikusten den sektore edo eremuetan, eta HAPO planean xehetasunez antolatzen badira, hotsaren inpaktuari buruzko azterlan bat barneratu beharko da, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 37. artikuluan xedatutakoaren arabera. Azkenik, kontuan izan beharko da Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legeko 50. artikuluan ezarritakoa eta, horrenbestez, babestutako kultura ondareetan eragina izan dezakeen hots-kutsadurari ote dagoen aztertuko da, eta beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak eta babes-neurriak hartuko dira.
  - **Jasangarritasun Energetikoa.** Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeko 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, HAPO planean jasangarritasun energetikoari buruzko azterlan bat gaineratu beharko da, Lege horretako 7.3 artikuluan ezartzen diren alderdiekin.

Udalerriri buruzko ingurumen arloko egoeraren diagnosa egin ondotik, haren bilakaerari buruzko aurreikuspena burutuko da, hala ingurumenean eragina izan dezaketen joera sozioekonomikoak nola espero den klima-aldaketa kontuan hartuz. Azken alderdi horri dagokionez, udalerrian klima-aldaketarekin lotuta izan daitezkeen inpaktuak identifikatu eta, era berean, haietara egokitzeari dagokionez lehentasunez esku-hartzeko eremuak identifikatzea komeni da.

Behin Antzuolako ingurumen arloko ezaugarri orokorrak deskribatuta, HAPO planari jarraiki jardute adierazgarri edo inpaktu handienekoak hartuko dituzten zonalde edo kokapenen ezaugarriak ipiniko dira xehetasun handiagoaz, esate baterako, hirigintza-garapenak egikaritzea aurreikusten den eremuetan.

Azkenik, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garaturik, horri dagokionez premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuko 31.1 artikuluan zehazten dena betez, bertan barneratzen diren aurreikuspenei so lurzoruek dute ahalmenaren azterketa bat helarazi beharko da, beste alderdi batzuen artean, honako hauek aintzatetsiz: Jabari publiko hidraulikoaren babesari buruz ur arloko

administrazioak osatu duen informazioa, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak hornidura- eta saneamendu-sareari buruz eta eskari berriei erantzuteko behar besteko ur-baliabideak egoteari buruz, zein hondakin-uren isurkin berriak tratatzeko ahalmenari buruz eraturako informazioa, errepide zein aurretiaz dauden bestelako azpiegiturei dagokienez eskumena duten administrazioen txostena, planean jasotzen diren aurreikuspenen balizko eraginari buruzkoa, etab.

Atal horrek gaiarekin lotutako kartografia gaineratu beharko du, azkenik bertan gaineratzen diren alderdi guztiei dagokienez eskala egokian.

#### **7.4 Alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitua. Erabakitako hautabidearen justifikazioa.**

Ingurumen-ikerketan estrategikoan HAPO planeko helburuei erantzuteko teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren alternatiba ezberdinei buruzko ingurumen arloko azterketa bat jaso beharko da. Aintzatetsitako alternatiba bakoitzaren ingurumen-inpaktua ebaluatu eta planeko helburuekiko eta, bereziki, ingurumen arloko helburuekiko, horien asebetetze-maila zehaztuko da.

Horretarako, behin ikergai den eremuko ingurumen arloko elementu eta arazo nagusiak identifikatuta eta, era berean, ingurumena babesteko helburuak identifikatuta, HAPO planaren garapenerako eta hartako helburuak betetzeko teknikoki, ekonomikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarriak diren alternatiba ezberdinak proposatu beharko dira. Horien artean "0 alternatiba" edo ez esku-hartzekoa barneratu beharko da derrigorrez, hau da, udalerraren egiturazko antolamendua aldatzen ez duena. Ahal denean, hirigintza arloko jarduketan delineazio edo diseinuzko aukerak nahiz horiek egikaritzeko balizko kokapenak alderatuko dira.

Aurrerapen-agirian jasotako planteamenduak kontuan hartuz, alternatiben azterketan xehetasunezko analisi hauek barneratu beharko dira:

- **Bizitegi-garapen berriak kokatzeko alternatibak.** Lehenik eta behin, HAPO planaren iraunaldian zehar udalerrian ezinbestekotzat jotzen den etxebizitza kopurua zehaztu behar da, burututako kuantifikazioa parametro, sozial, demografiko eta ingurumenekoak oinarritzat hartuz justifikatuz, betiere, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek kuantifikazio horri buruz ezartzen dituzten mugen barnean. Behin bizitegi-ahalmena zehaztuta, azkenik sakontasun gehiagoz ikertzea erabaki diren bizitegien kokapen eta banaketarako alternatiben azterketa bat burutuko da. Azterketa horretan, aintzatetsitako etxebizitzaren kokapen eta tipologiei dagokienez dauden aukera ezberdinek ingurumenaren gainean duten eragina aintzatetsi beharko da, ingurumen-elementu baliotsuen gainean (nekazaritza aldetiko balio handikoak diren lurzorua edo nekazaritza ustiapenekin lotutakoa) inpaktu esanguratsuak sorrarazten dituztenak, edota pertsonengan edo ondasunetan uholde arriskua dela medio kalteak eragiteko arriskua areagotzea dakartenak baztertuz.
- **Jarduera ekonomikoetarako, espazio libreetarako eta ekipamenduetarako lurzoruen alternatibak.** Azterketan udalerrian jarduera ekonomikoetarako, espazio libreetarako eta ekipamenduetarako lurzoruari begira egiaz dauden premiak zehaztu behar dira. Behin premia horiek finkatuta, jarduera ekonomiko, espazio libre eta ekipamenduetarako azkenik sakontasun gehiagoz ikertzea erabaki diren kokapen eta banaketarako alternatibak aztertuko dira. Azterketa hori beti jasangarritasun-irizpideak jarraituz egingo da, ingurumen-elementu baliotsuen gainean (esate baterako, balio estrategiko handiko nekazaritza lurzorua) inpaktu esanguratsuak sorrarazten dituztenak, edota pertsonengan edo ondasunetan uholde arriskua dela medio kalteak eragiteko arriskua areagotzea dakartenak baztertuz.

Alternatiben azterketan, HAPO planaren aurrerapenean proposatu den eran, lehentasunezkotzat jo beharko da, hautemandako premiak estaltzeko dagoeneko urbanizatuta dauden eremuak sendotu eta berritzea, egun Lurzoru Urbanizaezinean edo urbanizatu gabe dauden eremuak garatu beharrean.

Halaber, alternatiben azterketan proposatutako hirigintza-eremuen barnean erabilerean barne banaketa aintzatetsi beharko da, hauei begira:

- Ingurumen arriskuak kontuan izatea, esate baterako, uholde arriskuak edo kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen presentzia.

- Nekazaritza aldetiko balio handiko lurzoruen edo nekazaritzako ustiapenekin lotutako lurzoruen, landarediaren eta Batasunaren intereseko habitaten gaineko eragina gutxitzea, eta jabari publiko hidraulikoa eta bere babes-eremuak berreskura daitezela ahalbidetzea.

Edozein kasutan, egindako alternatiben azterketan erabilitako metodologia azaldu beharko da eta ingurumen arloko faktoreak eta irizpide anitzeko ikuspuntu batetik faktore tekniko, funtzional eta ekonomikoak zein neurritan hartu diren kontuan jaso beharko da. Balioetsitako alderdi bakoitzean azkenik hautatutako alternatiba ez badator bat ingurumen arloko balioespen onenarekin, hura hautatzearen arrazoiak azaldu beharko dira.

Dokumentazio kartografikoa gaineratuko da, proposatutako alternatiba ezberdinen lokalizazioa eta ezaugarriak adierazita.

### **7.5 HAPO planeo zehaztapen eta jardukete ezberdinek ingurumenean duten eragin adierazgarrien identifikazio eta balioespena.**

HAPO planean aurreikusitako jarduketak identifikatu eta haiek bitartekoaren elementu ezberdinetan zer-nola eragingo duten balioetsiko da. Horien artean, besteak beste, honakoak egingo dira:

- Intereseko habitatak
- Balio estrategiko handiko nekazaritza lurzoruen edo nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak.
- Ur masak eta ur arloko araudiaren arabera babestutako zonaldeak.
- Paisaia.
- Hiri-ingurunearen kalitatea hainbat alderdirekin lotuta, esate baterako, zaratarekin edo trafikoarekin.
- Giza osasuna.
- Ondare monumental eta arkeologikoa.

Halaber, HAPO planean planteatzen denak hauen gainean zein neurritan eragingo duen zehaztu beharko da,

- Mugikortasun-eskaera.
- Baliabideen kontsumoa, urarena eta energiarena kasu.
- Hondakin-uren isuria eta hondakinen sorrera.

Aztertutako inpaktuetan aintzat hartu beharko dira zeharkako efektuak, metagarriak, sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerakoak, iraunkorrak eta aldi baterakoak, positiboak eta negatiboak.

Identifikazioa eta balioespena ez da antolatutako eremuaren eraldaketa fisikoak sorrarazitako zuzeneko inpaktuetara mugatuko; izan ere, proposatutako antolamenduak edo erabilera eta jardueren erregulazioak sorrarazitako zeharkako ingurumen-inpaktuak barne hartu beharko dira.

Antzemandako inpaktuen garrantzia zehazteko, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko III. eranskinean eta plan eta programetako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuko III. eranskinean ezarritakoari jarraituko zaie.

Identifikatutako eragin bakoitza bere tamaina eta intentsitatean ezaugarritu eta balioetsi beharko da. Horretarako, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko VI. eranskineko 8. atalean adierazitako terminologia erabili ahal izango da. Horretarako, eragina behar bezala deskribatzeko eragin-adierazleak (adierazgarriak, esanguratsuak, baztertzailleak, zenbakarriak eta identifikatzen errazak) eta eraginari dagokionez gutxieneko muga onargarriak finkatzeko ingurumen arloko kalitatezko helburu zenbait zehaztuko dira, indarreko legeria erreferentzia modura hartuz, eta baita eskumeneko organoen jarraibideak ere, kasu bakoitzean.

Halaber, balioespen horretan, hala badagokio, indarreko lurralde-, hirigintza- eta ingurumen-plangintzarekin bateragarriak ez diren HAPO planeo jarduketak adieraziko dira, edo ingurumen-eragin kritiko edo ez onargarriak sorrarazten dituztenak. Bi kasuetan, jarduketa horiek aldatu edo baztertzea inplikatu du horrek.

Azkenik, egokiago jotzeagatik inpaktuen ebaluazioa prozesuaren ondorengo beste fase batzuetara atzeratzen diren alderdiak arrazoitu egingo dira.

## 7.6 Ingurumen-integraziorako neurriak

Ingurumen-txosten estrategikoan HAPO planean aurreikusitako esku-hartzeen ondorioz ingurumenean adierazgarritzat jotako eragin bakoitza prebenitu, murriztu eta, ahal den heinean, ahultzeko neurriak zehaztuko dira.

Halaber, HAPO planean ingurumenarekin lotutako alderdien integrazioa ez litzateke mugatu behar balizko inpaktu baten aurrean erantzuteko neurriak ezartzera, izan ere, horiek ingurumen arloko arazoak zuzentzen laguntzeko beste batzuen eta udalerrian ingurumenaren kalitate handiagoa lortzekoen osagarri izatea komeni da.

Modu horretan, Antzuolako HAPO planaren ingurumen-integrazioa neurri mota hauek hartuz burutu behar da:

- Lurraldearen plangintzan eta herriaren diseinuan ingurumen alderdiak aintzatetsi eta gaineratzea, alde aurretik dauden arazo edo inpaktuak prebenitu edo zuzentze aldera. Ez du normalean aurrekontu espezifikorik eskatzen. Horien artean, honako adibide hau jar daiteke: natura-balioak behar bezala babestea bermatzeko lur urbanizaezinaren antolamendu bat zehaztea, inpaktua eragin dezaketen jardueren arauketa-ordenantza gaineratzea, sentsibilitate urriko eremuetan garapen berrien kokapena hautatzea, eraikinak energiari dagokionez portaera hobea izan dezaten eta eguzkiaren argia hobeto aprobetxa dezaten saiatzea, etab.
- HAPO Planaren zehaztapenak garatzen dituzten plan eta proiektuen ingurumen-inpaktu negatiboak prebenitu eta zuzentzeko neurriak, klima-aldaketaren gaineko bere eragina arindu eta hartara egokitzea ahalbidetzekoak barne. Neurri horiek egikaritze-proiektuen zatitza hartu beharko dira eta, horrenbestez, haietako aurrekontuetan jaso beharko dira. Haietako askok garatzeko plan edo proiektuarekin batera zehaztea eskatuko dute baina, edozein kasutan, HAPO planean identifikatu egin beharko dira eta haien ezaugarri gutxieneko zenbait egin beharko dira. Horrez gain, garatzeko plan eta proiektuetan haiek kontuan hartzearen betebeharra zehaztu beharko da.
- Egiaz gertatuko diren kapital naturalaren galerak konpentsatzeko neurriak, behin horiek ekidinezin modura ebaluatu ondotik. Plangintzaren tresnan honako hauek zehaztuta geratu behar dira:
  - Non konpentsatzen den, berreskuratzea komeni den andeatutako eremuetan, tokiko igarobide-sarean eta balizko aukeretan oinarrituta lehentasunak zehazteko azterlan batetik abiatuz.
  - Konpentsatzeko jarduketak hartuko dituzten lurren eskurapena sailkatzen den lurzoruari lotuta geratu behar dela, esate baterako, atxikitako sistema orokor baten bidez edo zuzkidura publikoak eskuratzeko jarduketa baten bidez.
  - Neurri konpentsatzaileen kostua sektore berriaren urbanizazio-gastu bat izan behar dela.
  - Neurri konpentsatzaileak eraikuntza-lizentziak eman aurretik egikaritu beharko direla.
- Udalerrien ingurumena hobetzeko jarduketak, hura ekologikoaren edota paisaiaren ikuspegitik berrezartzea edo espazio edo eremu jakin batzuen ingurumenaren kalitatea hobetzea helburutzat dutenak. Horri dagokionez, HAPO planean berrezartzeko guneak edo ingurumenari dagokionez garatzeko hobekuntza-jarduketak identifikatu eta horien lehentasunezko hurrenkera bat zehaztea komeni da, eta hori egikaritzeko programa bat ezar dadila.

Ingurumen-integraziorako neurriak HAPO planaren hirigintza-agirian jaso beharko dira eta haien kostu ekonomikoa eta finantzatzeko moduak kalkulatu beharko dira (udal aurrekontuen kontura, dirulaguntzen bidez, beste erakunde batzuetako hitzarmenen bidez, urbanizazio-gastuen kontura, etab.), hori egikaritzeko denbora-plangintza bat ezartzearekin batera. Azkenik, garatzeko plan eta proiektuetan aintzatetsi beharreko neurriak zehaztuko dira.

## 7.7 Planaren eraginak ingurumenaren ikuspegitik ikuskatzeko programa.

Ingurumen-ikerketan estrategikoan HAPO planak ingurumenaren gainean izango dituen eraginak ikuskatzeko programa bat barneratu behar da, identifikatutako inpaktu adierazgarri bakoitzaren jarraipena egin, babes-neurriak, neurri zuzentzaileak eta konpentsatzaileak nahiz horien eraginkortasuna bete eta HAPO planean ingurumenari dagokionez zehaztutako helburuak lortzeko moduan.

Horretarako, programan hauei buruzko informazioa jaso beharko da aldizka,

- Proposatutako ingurumen arloko helburuen betetze-maila.
- Hura abiaraztetik eratorritako ingurumen-inpaktu negatiboen tamaina.
- Babes-neurri eta neurri zuzentzaileen eta, hala badagokio, neurri konpentsatzaileen aplikazioa eta eraginkortasuna, egikaritze-plan eta -proiektuak garatzeko dagozkion dokumentuetan neurri horiek gaineratzea barne.
- Bitartekoaren elementuen gainean agertu diren ustekabeko ingurumen-eragin kaltegarrien identifikazioa.
- Sektorean eskumena duten organismo edo administrazio ezberdinen aldetik (urak, hondakinak, zarata, kutsagarriak izan daitezkeen lurzoruak, errepedeak, jarduera sailkatuak, etab.) dagozkion baimenetan nahiz udal eremuko baimenetan ezarritako ingurumen arloko baldintzatzaileak betetzea.

Helburu horrekin, ikuskapen-programan zera barneratu beharko da:

- Jarraipena eskatzen duten ingurumen arloko sistema, alderdi edo aldagaien identifikazioa.
- Burutzeko jarraipenerako eta kontrolerako jarduketak, metodologia (datuak hartzeko estrategiak, aldizkakotasuna, etab.) eta dagozkion kronograma adierazita.
- Erabiltzeko jarraipenerako adierazleak, dagozkion mugako edota erreferentziazko unitate eta mailak adierazita. Adierazle modura dokumentu honetako 8. atalean iradokitzen direnak edo egokitzen jotzen diren beste zenbait erabili ahalko dira.
- Ingurumen arloko jarraipena egiteko ardura duten pertsona edota erakundeak.
- Igortzeko txosten ezberdinen edukia eta horien aldizkakotasuna.
- Aurreikusitako aurrekontua.

## **7.8 Laburpen ez teknikoa**

Ingurumen-ikerketara estrategikoan helarazitako informazioaren laburpen ez tekniko bat idatzi beharko da, informazio zehatza eta publiko orokorrak ulertzeko modukoa emanez.

Laburpen horretan, HAPO plana eratzearekin lotu asmo diren helburu orokorrak eta ingurumenarekin lotutakoak, aintzatetsitako alternatibak, horietako bakoitzak ingurumenaren gainean dituen eraginei buruzko laburpen bat nahiz azkenik hautatutako irtenbidea edo irtenbideak hautatu izanaren arrazoiak jasoko dira.

Laburpena diseinatutako neurri zuzentzaileen deskribapenarekin eta partaidetza publiko eta administratiboaren prozesuko ondorioekin osatuko da.

Halaber, alderdi nabarmenei buruzko dokumentazio grafikoa gaineratuko da.

## **7.9 Alternatiben nahiz prebentziozko neurrien, neurri zuzentzaileen eta konpentsazio-neurrien bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena.**

Alternatiben ikerketara hurbiltasunezko analisi ekonomiko bat gaineratuko da, kostu-onura eta ekonomia-finantza alderdien analisia aintzatetsiz, ahal den heinean, ingurumen arloko eta izaera sozialeko kanpoko kostuen analisia ere barneratuz.

Halaber, atal honetan HAPO plana aplikatzeak ekar ditzakeen eragin negatiboak prebenitu, murriztu edo arintzera bideratutako neurrien kostuen estimazio edota aurrekontu bat barneratuko da, hartatik eratortzen diren ingurumen arloko kostuak barnean sartzea bermatze aldera. Halaber, neurri horiek finantzatzeko iturriak barneratu beharko dira, Antzuolako Udalaren aurrekontuen kargura baitaratuko direnak eta, hala badagokio, hirigintza-proiektu edo jarduketetako sustatzaileek baitaratu beharrekoak bereiziz.

## **8.- INGURUMEN-EBALUAZIOAN ETA IKUSKAPENERAKO PROGRAMAN AINTZATESTEN KUALITATIBOEN PROPOSAMENA**

Alternatiben ingurumen-ebaluaziorako eta ikuskapenerako programarako hautatutako adierazleak zehazterako orduan, alde batetik, HAPO planean ezartzen diren ingurumen arloko helburuak betetzen direla egiaztatzeko aldagai zenbait eta, beste alde batetik, haren garapenean sor daitezkeen ingurumen arloko

eraginen aurreikuspenekin lotutako aldagaiak jasoko dira. Horrela, ingurumen arloko helburuekiko ez-betetzeak edo aldaketa gertatuko balira, neurri zuzentzaile gehigarriak gaineratu ahal izateko.

Ingurumen-adierazleak:

- Adierazitako ingurumen arloko helburu eta irizpideekin lotutakoak izan behar dira, HAPO plana eratu eta aplikatzean parte hartzen duten eragileen erantzukizunak finkatzea ahalbidetzeko egiazko kudeaketa-tresna modura funtziona dezaten egiaz.
- Neurgarriak izan behar dira, eta denbora-serie jakinetan aztertzeko modukoak. Denboran zeharreko aldagarritasuna adierazteko modukoak izan behar dira, haiek aztertzea zilegi izan dadin, joera negatiboak prebenitu edo zuzentzeko.
- Gutxi izan behar dira kopuruan, eragindako eragile guztiek erraz ulertzeko xedez. Horretarako, sinpleak eta interpretatzen errazak izan behar dira.
- Eskuragarri egon behar dira, horiek eskuratzeko informazio-iturri ugaitara jo beharrik gabe.

Antzuolako udalerriko ezaugarriak eta aurrerapenean zein hasierako dokumentu estrategikoan jasotako planteamenduak kontuan izanik, adierazle erabilgarri zenbait izan daitezke lurzorua kontsumoa (azalera artifizializatua guztizko azaleraren barruan), Batasuneko intereseko habitatek eta intereseko landarediak okupatutako azaleraren portzentajea edota azaleko uren kalitate ekologiko eta kimikoaren indizeak balioestekoak.

## 9.- INFORMAZIO ETA KONTSULTARAKO MODALITATEAK

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 21. eta 22. artikuluetan ezarritakoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoa betez, HAPO planaren prozedura substantiboan aurreikusitako izapideen barnean, informazio eta kontsultarako modalitateekin lotuta, jarduketa hauek burutuko ditu Antzuolako Udalak:

a) Eragindako herri-administrazioei eta interesdunei plan edo programaren hasierako bertsioa eta ingurumen-ikerketara estrategikoa kontsultatzea.

b) Plan edo programaren hasierako bertsioaren eta ingurumen-ikerketara estrategikoaren informazio publikoa, iragarkia aldizkari ofizialean ipiniz, gutxienez 45 egun izanik hura aztertu eta oharra egiteko.

Aurrekoaren ondorioetarako, eragindako herri-administrazio eta interesdun modura hartuko dira Ingurumen arloko Zuzendaritza Nagusiak irismeneko dokumentu hau idazteko (dokumentu honetako 2. atala) kontsultatutako administrazio, erakunde eta pertsonak, eta baita Udalak plana izapidetzeko prozesuan zehar identifika ditzakeen erakunde eta interesdun gehigarriak ere (eragindako lurren jabedunak, auzotarren elkarteak, etab.).

## 10.- INGURUMEN-ADIERAZPEN ESTRATEGIKOAREN ESKAERA ETA JENDAURREKO EPEALDIAREN OSTEAN PLANEAN IZAN DAITEZKEEN ALDAKETAK

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 24. eta 25. artikuluetan eta Plan eta programetako ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, plan edo programa behin betikoz onartu aurretik, Antzuolako Udalak ingurumen-adierazpen estrategikoa igortzeko eskatuko dio Ingurumen arloko Zuzendaritza Nagusiari. Gainera, eskaera horrekin batera ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa gaineratuko da, hauekin osatzen dena:

- HAPO planaren hirigintza-agiriak.
- Ingurumen-ikerketara estrategikoa.
- Dagokion arloko araudiaren arabera beharrezkoak diren txostenen eta kontsulta eta jendaurreko izapideetan egin izan ahal diren arrazoibideen kopia.
- Laburpen-dokumentu bat, non Antzuolako Udalak HAPO planaren azken proposamenean ingurumen arloko alderdiak nahiz ingurumen-ikerketara estrategikoa zer-nola txertatu dituen eta hura irismeneko dokumentura zer-nola egokitzen den deskribatzen duena, egindako kontsulten emaitza eta horiek zer-nola aintzatetsi diren ere deskribatuz.



Bestalde, plana izapidetzen den bitartean eta kontsulta eta jendurreko izapidearen ostean, ingurumenaren gainean ebaluatu ez diren eragin adierazgarriak ekar ditzaketan aldaketak adostuko balira eta, edozein kasutan, 211/2012 Dekretuaren 4. artikuluan adierazten diren egoeretako bat emango balitz, kontuan hartu beharko da, Udalak Zuzendaritza honi jakinarazi behar diola. Horretarako, aldatutako plan edo programako alderdiak ebaluatzeko beharrezkoa den dokumentazioa helarazi beharko zaio.

Donostia, 2023ko abuztuaren 7a

INGURUMEN ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA,

Sin.: Izaskun Gómez Cerdeño



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

Antzuolako HAPOko Ingurumen ikerketa estrategikoaren Irismeneko